



BERAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

2016-2020



SARRERA

Euskararen erabilera planaren testuingurua

1.- MARKO JURIDIKOA

Berako Udaleko barne erabilera planaren marko juridikoa honako hiru legezko testuk baldintzatzen dute: abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa, eta martxoaren 26ko 1/2001 Lege Organikoak aldatua; abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak (Euskararen Legea) eta Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 23ko 29/2003 Foru Dekretuak.

- **Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa, eta martxoaren 26ko 1/2001 Lege Organikoak aldatua**

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, gai berari buruzko martxoaren 26ko 1/2001 Lege organikoak aldatu zuen.

Lege Organiko horren atariko tituluko xedapen orokorretan honela dio:

9.1 artikulua: “Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.”

9.2 artikulua: “Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.”

“Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.”

- **Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea (Euskararen Legea)**

Abenduaren 15eko Euskarari Buruzko Foru Legeak, 18/1986 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Eskualde euskaldunetako euskararen erabilpen ofiziala arautzerakoan, lege horren I. tituluko II. Kapituluak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortzen dizkien hizkuntz eskubideak bermatzeko, neurri egokiak hartu eta beharrezko bitartekoak erabakiko direla xedatzen du; baita sustatuko den administrazioaren zerbitzupeko zein izaera publikoko enpresen pertsonala euskara erabiltzeko gaitzea ere.



5.1. artikulua: Bera eremu euskaldunean kokatzen du.

6. artikulua: “Aitortu egiten da hiritar guztiek administrazio publikoekiko harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela, ondorengo kapituluetan ezarritako eran.”

10.1 artikulua: “Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezkoak gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko.”

15.2 artikulua: “Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontuan hartzeko merezimendutzat hartuko da bertzeren artean.”

➤ **Otsailaren 23ko 29/2003 Foru Dekretua (Administrazio Publikoari buruzkoa)**

Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 23ko 29/2003 Foru Dekretuak, berriz, eremu euskaldunari buruzko I Kapituluaren 3. atalean, 9.1 artikulua, eta eremu mistoko II Kapituluaren 2. atalean, 14.1 eta 14.2 artikuluek administrazio publikoen harremanei buruz diotena kontuan hartu beharrezkoa dugu. Hona hemen:

I KAPITULUA (EREMU EUSKALDUNA)

3. ATALA:

9.1 artikulua: “Eremu euskalduneko administrazio publikoek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek elkarri igortzen dizkieten agiri, jakinarazpen eta komunikazio administratiboak bi hizkuntza ofizialean idatzi beharko dira, euskarri bakarrean edo bitan, alde ukituek hizkuntza bakarrean egitea espresuki hitzartzen dutenean izan ezik, Administrazioaren edo dagokion entitatearen organo eskudunak ezartzen duena kontuan harturik.”

II KAPITULUA (EREMU MISTOA)

2. ATALA:

14.1 artikulua: “Eremu mistoko administrazio publikoek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek elkarri edo eremu euskaldunekoei igortzen dizkieten agiri, jakinarazpen edo komunikazio administratiboak ele bietan



izan ahalko dira, euskarri bakarrean, baina gaztelaniaz izan beharko dute hizkuntza bakarra erabiliz gero.”

14.2 Artikulua: “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta hari lotutako zuzenbide publikoko entitateek, hots, egoitza eremu mistoan dutenek, eremu euskaldunean eta mistoan dauden bertze administrazioetara igortzen dituzten agiri, jakinarazpen eta komunikazio administratiboak gaztelaniaz idatzi beharko dira, eremu euskaldunean eta euskaraz hasitako administrazio prozedurei dagozkienak izan ezik, horiei ele bietan eman ahalko baitzaie jarraipena.”

2.- BERAKO UDALAREN IBILBIDEA

Euskal Herriko berezko hizkuntza sustatzeko, Berako Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da (UEMA) 2009ko abendutik. UEMAREN jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAK euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan, eta lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Euskara planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Horrenbestez, euskara plan honen **helburu estrategikoe**k helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Berako Udalak bere lehenengo plana 2010eko uztailan onartu zuen. Plan horrek lau urtetarako proposamenak jaso zituen eta aurrera begirako neurriak proposatu ziren.

Egun Udalak euskararen erabilera plana berritzeari ekin dio eta, beraz, esku artean dugun agiria hurrengo bost urteei begira onartu beharreko plana da. Bertan, gaur egun Berako Udalak, UEMAK bere baitan dauden udaletarako onartuta dituen hizkuntza irizpideak kontuan harturik, euskararen erabileraren egoeraren berri ematen da eta, halaber, hurrengo bost urteetan lortu beharreko helburu orokorrak zehazten dira.

Horrela bada, hauek dira Berako Udaleko egungo euskararen erabilera plana eta hurrengo bost urtetarako onartuko dugun plana:



PROZEDURA ETA METODOLOGIA

Diagnostikoa egiteko, administrazio buruekin eta ordezkari politikoekin egindako galdetegien erantzunetan oinarritu gara. Hasiera honetan ez da laginketarik egin. Laginketak plan estrategiko honen jarraipena izango diren urtez urteko kudeaketa planetan txertatuko ditugu.

Galdetegietako datuak aztertu ondoren, Udala UEMako kide denez, Udalaren egoera UEMako Zuzendaritza batzordeak onartutako hizkuntza irizpideekin alderatu dugu. Alderatze horretatik ateratako emaitzarekin Udala lau multzoetatik batean sailkatu dugu. Multzoak, egoera kaskarrenetik hoberenera, hauek dira: abian, magalean, gora bidean eta tontorrean.

Azkenik, Udalaren egoera horretatik abiatuta, bost urteren bueltan lortu nahi diren helburu estrategikoak zehaztu ditugu.


Plan hau eraginkorra izango bada, beharrezkoa da udal langileek eta ordezkariak plan hau bere egitea, eta horretarako, behin betiko txostena egin aurretik, aurkezpenen bidez, beraiekin kontrastatu dugu, euren ekarpenak jasotzeko.

Erabilera plana ontzat emandakoan, planaren jarraipenaren ardura izango duen Jarraipen batzordeko kideak izendatuko ditu Udalak.




ERABILERA PLAN BERRIA ONARTZEKO IBILBIDEA

1.- Datuak biltzea



2.- Plana onartzeko prozedura





HELBURUEI BEGIRAKO KONPROMISOAK BETETZEKO AZPIEGITURA

Txosten honetan zehaztuko diren helburuei begira, urtean behin hartu beharreko konpromisoak zein diren aztertu eta zehaztuko da eta, era berean, konpromiso horiek ekarriko dituzten neurriak nork eta nola bete/betearaziko dituen jasoko dugu puntu honetan. Horren ardura hartuko duen azpiegitura Jarraipen batzordea izango da.

Jarraipen batzordea kide hauekin osatuko da:

- Arduradun politikoak: garrantzi handia izango du UEMAko ordezkariak edo euskara zinegotziak parte hartzea.
- Udaleko edo eskualdeko euskara teknikaria
- Langileak: garrantzi handia izango du zerbitziburuek parte hartzea.
- UEMAko hizkuntz normalizatzailea
- Udalak ondo baderitzo, herriko euskalgintzako kideak edo Euskara batzordeko kideak.

Horrenbestez, zeregin hauek bideratuko ditu Jarraipen batzordeak:

- Talde eragilea izango da.
- Gutxienez, sei hilean behin elkartuko da, eta hurrengo aldirako zereginak zehaztuko ditu bilera bakoitzean.
- Ardurak banatuko ditu, txostenak onartutako helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzeko.
- Konpromiso/neurri bakoitza betetzeko edo/eta betearazteko arduradunak izendatuko ditu.
- Jarraipen batzorde batetik bestera banatutako lan eta ardurak bete diren baloratu eta egokitzapenak egingo ditu, hala behar izanez gero.
- Udalbatzari edo Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio zer neurri edo erabaki hartuko diren.



UDALAREN EGUNGO EGOERA

Berako Udalaren euskararen erabileraren egungo egoera aztertzeko, Udalaren administrazio atalak zein diren zehaztu dugu eta hiru atal hartu ditugu kontuan, Idazkaritza, Kultura zerbitzua eta Isidoro Fagoaga Udal Musika eskola. Beraz, aurretik definitu ditugun alorrez alorreko adierazleak jaso ditugu, galdetegi bidez. Idazkaritzan udal ordezkarien datuak, udal webgunekoak eta udalerrinari dagozkionak (hizkuntza paisaia) sartu ditugu. Era berean, Udala partaide den Bortzirietako Mankomunitatearen zerbitzuei dagokienez, hizkuntzarekin lotutako hainbat datu ere bildu ditugu.

Administrazio atal bakoitzeko alorrak honako hauek dira:

1. Irudi korporatiboa
2. Barne harremanak
3. Kanpo harremanak
4. Baliabideak

Horrenbestez, honela egituratu dugu informazioa:

- Aztergaia
- Egoeraren analisia
- UEMAREN irizpidea

Bukaeran, UEMAREN irizpideak betetzeko bidean 2020 amaierarako Udalak zein helburu estrategikoak lortu behar dituen adierazita daude.

Urtean behin landu beharreko helburuak zehaztuko eta adostuko ditugu Jarraipen batzordean; batzorde horietan urte bakoitzerako helburuak betetzeari begirako neurriak ere zehaztu, adostu eta fiskalizatuko dira, egitekoak eta arduradunak izendatuz.



1. UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA

Berako Udalak kanpora begira ematen duen irudi korporatiboa aztertu dugu. Horretarako, hainbat elementu hartu ditugu kontuan.

1. Erabilera sustatzeko elementuak
2. Webgunea eta sare sozialak
3. Hizkuntza paisaia
 - a. Barnekoa
 - b. Kanpokoak
4. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak
5. Argitalpenak
6. Adierazpenak



1. Erabilera sustatzeko elementuak:

Erabilera sustatzeko elementuei dagokienez, jendaurrean “Euskaraz hitz egin”, “Hemen euskaraz” edo antzeko mezuak dituzten euskarriak erabiltzen diren aztertu dugu (horma-irudiak, mahai gaineko egutegiak...).

Egoeraren analisisa:

IDAZKARITZA

Herriko etxean aurkitu ditugun elementu bakarrak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen mahaigaineko egutegiak dira. *Lan eta bizi euskaraz* diote.

Udalerrian aurkitu ditugunei dagokienez, UEMAREN herri sarreretako bide seinaleak da, *Beran euskaraz bizi gara* diotenak.

KULTURA ZERBITZUA

Kultur Etxean ez dago euskara sustatzeko elementurik.

ISODORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Udal musika eskolan ez dago euskara sustatzeko elementurik.

UEMAREN irizpidea

Udal instalazioetan udalak euskara lehenesten duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

2. Webgunea eta sare sozialak

Webguneari dagokionez, webgunearen edukiak euskaraz dauden aztertu dugu, baita sare sozialetan Udalaren menpeko profilekin egiten den erabilera ere.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Udalaren webgunea (<http://www.bera.eus>)

Webgunearen arduradun edo kudeatzaile orokorra administrari bat da, baina tarteka Kultur teknikariak ere Kultur agendako zein Isidoro Fagoaga Udal Musika eskolako edukiak sartzen ditu.

Isidoro Fagoaga Udal Musika eskolak udal webgunean jarri beharreko edukiak Kultur teknikariaren bitartez bideratzen dira.



Webgunearen hasiera orria euskaraz lehenetsita dago; hau da, euskaraz zabaltzen da.

Webgunearen euskarazko bertsioan azalpen laburrak, edukiak eta udal agiri gehienak euskaraz daude. Nabarmentzekoa da alkatearen agurra soilki euskaraz dagoela. Dena den, badira batzuk ele biz (aktak, argazki galeriako udalaren logoa, Kultura arlokoak, Musika eskolakoak...) zein gaztelaniaz (oharren taulako 2 agiri, udal arautegiko agiri batzuk) ere.

Gaztelaniazko bertsioan, berriz, azalpen laburrak eta edukiak gaztelaniaz daude, baina udal agiritegi gehiena ele biz (inprimakiak) dago; halere, udal agiritegian bada gaztelania hutsezkorik euskarazko hautuan bezala.

Webguneko loturei dagokienez, gehienak euskaraz daude, baina badira gaztelaniazko webguneetara eramaten dutenak ere. Horietako batzuk ez dute euskarazko hauturik jartzeko aukerarik (Nafarroako udale webguneak- animsa-, Nafarroako Enplegu zerbitzua...) eta beste batzuk bai (posta -Correos-...).

Azkenik, errore oharrak euskaraz (webguneko euskarazko hautuaren edukietakoak), gaztelaniaz webguneko gaztelaniazko hautuaren edukietakoak) edo ingelesez (esteka akasduak) daude.

KULTURA ZERBITZUA

Kultur agenda bloga (<http://www.berakoagenda.eus>)

Blogaren kudeatzailea kultur teknikaria da.

Euskaraz lehenetsia dago blogerako sarrera.

Euskarazko hautuan edukiak euskaraz daude, baita egutegikoak ere. Dena den, egutegiaren formatua ingelesez dago (*Calendar*). Dokumentuei dagokienez, bi agiri daude, baina ez da ikusterik izan zein hizkuntzatan dauden, errorea ematen baitute. Web loturak euskarazko orrietara eramaten dute erabiltzailea, Manttalerenak izan ezik, sarrera orrian hizkuntza hautua egin behar baita edukietara sartzeko. Errore oharrak euskaraz bistaritzen dira, baina izan daiteke gure sistema operatiboa euskaraz dagoelako.

Gaztelaniazko hautuan euskarazko hautuan bezalaxe daude web loturak, dokumentuak (errorea), egutegia, errore oharrak ... Soilik, edukiak dira gaztelaniaz daudenak.

Sare sozialak



Udalak ez du sare sozialetarako sarbiderik, baina *Berako agenda* blogak bai. *Twitterren* zein *Facebooken* du sarrera. *Facebookeko* edukiak euskaraz edo bitan daude. *Twitterrekoak*, berriz euskaraz zein gaztelaniaz.

UEMAren irizpidea

Webgunea euskaraz irekiko da eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia lehenengoz euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne.

Webguneak beste hizkuntza batean nabigatzeko aukera ematen duenean, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta on-line izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz ere egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarrietara eramango gaituztela bermatuko da.

Udalak sare sozialetan euskara erabiliko du.

3. Hizkuntza paisaia

- Barnekoa

Barneko hizkuntza paisaiari dagokionez, bi alor aztertu ditugu: alde batetik, papeleriarekin lotutako euskarrietako euskararen erabilera (gutun-azalak, orriak...), eta, bestetik, bulegoetako jendaurreko elementuak (horma-irudiak, errotuluak...).

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

1- HERRIKO ETXEA

Udal papertegian dena dago euskaraz: gutun azalak, orriak eta espedienteetarako karpetak. Dena dela, zenbait inprimaki eta bestelakoetan udal logoa ele biz ere agertzen da, udalaren irudiari lotuta.

Udal zigiluei dagokienez, 10 zigilutatik 3 euskaraz daude, datarena, sarrera erregistrokoa eta irteera erregistrokoa. Gainerakoak ele biz daude, udal logoarena barne.

Gainerakoan, artxibadoreak ez daude bistan, artxibatzeako artxiborako armairutan jasotzen dira. Agendarik ere ez da erabiltzen.



Bulegoetako hizkuntza paisaiari dagokionez, egutegiak euskaraz 9 (%82), eta ele biz 2 (%18) aurkitu ditugu. Segurtasun alorreko elementuei dagokionez, su itzalgailuek ez dute errotulaziorik piktogramaz adierazten dira, baina pegatina gaztelaniaz dute. Gainerakoan, Segurtasun irteerak euskaraz adierazita daude.

Ateetako errotuluak euskaraz daude, baita bulegoz kanpo dagoen ordutegia ere. Horma irudirik ia ez dago, baina herriko etxeko sarreran dagoen panela, Udalaren logoa duena, ele biz dago, euskara lehenetsiz (“Berako Udala/ Ayuntamiento de Bera (letra txikiz”).

Iragarki mahaian dauden agiriei dagokionez, gehienak euskaraz edo elebiz daude, baina bada gaztelania hutsezkorik ere.

Fitxatzeko makina euskaraz dago, fotokopiagailuak gaztelaniaz eta segurtasuneko alarma, aktibatu gabe badago ere, gaztelaniaz dago.

KULTURA ZERBITZUA

1- KULTUR ETXEA

Kultur Etxeko papertegiari dagokionez, gutun azalak eta orriak euskaraz daude (Udalarenak) eta zigilua ele biz, euskara lehenetsirik.

Gainerakoan, espedienteetarako karpetak euskaraz daude (udalarenak) eta artxibadoreak euskaraz errotulatzeko dira, nahiz eta jatorriz gaztelaniazko “año”rekin etorri.

Horrez gain, egutegiak euskaraz daude eta informazio mahaiko agiriak euskaraz edo ele biz, euskaraz gehiago. Kultur etxeko ordutegia, berriz euskaraz dago eta Turismo bulegokoa ele biz, euskara lehenetsirik.

Kultur etxeko guneei dagokionez, ez dago errotulorik.

Segurtasun elementuen alorrean, soilik, su itzalgailuak gaztelaniaz errotulatuak daude, piktogramaz lagundurik.

2- BERALANDETA (KULTURA ZERBITZUA)

Ez dago ia errotulatulorik eta daudenak piktogramaz adieraziak daude (komunak); gainerakoan segurtasunezkoen artean “irteera” diotenak euskaraz daude eta su itzalgailuen errotulazioa, berriz, gaztelaniaz, piktogramaz lagundurik.

3- LIBURUTEGIA (udal intalazioa-Nafarroako Gobernu)

Horma irudiak euskaraz daude, baita leihotako errotuluak ere (Berako Udala). Ele bietan topatutakoak, berriz, informazio agiri eta ohar informalak, eta apaletako gaikako tituluak ditugu.



Azkenik, gaztelaniaz segurtasun tresnak (su itzalgailuen errotuluak) eta horma irudi bat aurkitu ditugu.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Errotulu nagusia, eraikinaren fatxadan, euskaraz dago.

Papertegiari dagokionez, gutun azal eta orriak euskaraz daude. Zigilua ere bai.

Irakasle gelako artxibadoreak euskaraz errotulatzen dira, nahiz eta jatorriz gaztelaniazko “año”rekin etorri. Era berean, egutegi bat topatu dugu euskaraz.

Gainerakoan, musika eskolako ateetako errotulu gutxi ikusi ditugu; informalak dira eta euskaraz daude. Pasiloetan dauden horma irudietako batek gaztelaniazko adierazpena du eta beste batek euskarazkoa.

Sarreran, idazkaritzan dagoen ordutegia ele biz dago.

Azkenik, fotokopiagailua gaztelaniaz dago.

UEMAren irizpidea

a. Barruko hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egongo dira. Horrez gain, udalak piktogramak erabiltzea bultzatuko du, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko.

Gutun-azalak, orriak, fax-azalak eta abarrak euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma-irudiak ere euskaraz egongo dira.

Zigiluak euskaraz egongo dira, legeak ezinbestean arautzen duenari kalterik egin gabe.

- Kanpoko

Kanpoko hizkuntza paisaiari dagokionez, udalerriko errotuluak, seinaleak eta bestelako ageriko elementuak aztertu ditugu.

Egoeraren analisisa

UDALERRIKO HIZKUNTZA PAISAIA- (IDAZKARITZA)



Udalaren ardurapeko arropak euskaraz daude. Ibilgailuak ele biz, euskara aurretik. Udalerriko errotulu nagusia euskaraz dago eta auzoetakoak eta kaleetakoak ere bai. Norabidekoak ele biz daude, euskara lehenetsirik.

Obretako seinaleak euskaraz (%80) eta ele biz (%20) daude; eta albintek zein kaleko langileek erabil dezaketen udal prezinto zinta, berriz, ele biz. IBIRik ez dago.

Informazio panelak dagokienez, turismo alorrekoak (Ostalaritza-merkataritza, gune interesgarriak...) 4 hizkuntzatan daude, Euskarazko informazioak lehen tokia badu ere, gainerako hizkuntzek leku bertsua okupatzen du. Bertan agertzen diren mapak euskaraz daude.

Zaborrak biltzeko gailuak, berriz, Hiri hondakin solidoak kudeatzeko Bortzirietako Mankomunitatearenak dira eta mankomunitate horrek elkarlanean dihardu Baztango Udalaren Hiri hondakin solidoen kudeaketarako zerbitzuarekin eta Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearekin. Dena dela, euskara bermatua dago horietan. Euren edukiontzien errotulazioa (zaborra, plastikoa, parera eta kartoia, pilak) oro har, euskaraz dago. Beiraren edukiontzia (Ecovidrio) eta olioarenak (Ecogras) ez dira mankomunitatearenak, baina euskara bermaturik dute. Olioarenak eta beiraren edukiontzi batzuk ele biz daude, euskara lehenetsirik. Halere, badira beira biltzeko batzuk euskara hutsean ere.

UEMAren irizpidea

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egongo dira, eta udalak piktogramak erabiltzea bultzatuko du, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko.

4. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

Iragarkiei, publizitateari eta kanpainari dagokienez, Udalaren irudiarekin lotutako edukietako euskararen erabilera aztertu dugu.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Iragarkiak eta publizitatea

Derrigorrez prentsan iragarri beharreko iragarkiak hirigintzakoak zein enkanteak (oihan aprobetxamenduak eta udal hondasunak) izan ohi dira eta horrelakoak *Diario de Noticiasen* eta *Diario de Navarran* ele biz, eta *Ttipi Ttapan* eta *Berrian* euskaraz euskaraz argitaratzen dira. Azkenaldian argitaratu direnen artean Hirigintza planaren aldaketa bat eta hirigintzako xehetasun azterlanetako bat daude. Beraz, esan genezake derrigorrezkoak diren iragarkietan udalak duen



irizpidea honako dela: Nafarroa mailan argitaratzen diren bi hedabide nagusietan ele biz, indarrean dagoen legediak eskatzen duena betez, eta euskal prentsan (tokikoan eta Euskal Herri mailakoan) euskaraz.

Derrigorrezkoak ez diren iragarkiak edo publizitateari dagokionez, soilik euskal hedabideetan (Berrian eta Ttipi Ttapan) euskaraz argitaratzen dira. Azkenak, Lurraren egunari buruzkoa eta Ihauterietakoa izan dira.

Kanpainak

Kanpaina askorik ez da egiten. Kanpainen irizpidea da ele biz egitea, euskara lehenetsiz.. Azkeneko kanpaina Liztor beltzaren kontrako kanpaina, Bortziriak mailan egin da. Horretarako diptiko bat argitaratu da eta agerraldi bat egin da. Diptikoa ele biz argitaratu da, euskaraz %70 eta gaztelaniazko laburpena (%30).

KULTURA ZERBITZUA

Iragarkiak eta publizitatea

Iragarkiak egin behar direnean tokiko hedabideetara jotzen da *Ttipi Ttapara*, *Xorroxin* irratiara. Bertan iragarri beharrekoak, beraz, euskaraz iragartzen dira. Ohikoen iragarpenen artean dago *Ttipi Ttaparen* kontraportadan hilero argitaratzen den Kultur agenda. Azkenaldian egin diren bestelako iragarkien artean, berriz, Ihauterietakoa *Xorroxinen* eta Jabier Muguruzaren kontzertuari buruzkoak daude (*Xorroxin* eta *Ttipi Ttapa*).

Kanpainak

Ez dira egiten.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Iragarkiak eta publizitatea

Ttipi Ttapan eta Kultur agendan euskaraz egiten dira. Horrez gain, prentsara bidaltzen direnak, mailing bidez, erabiltzaileen edota erabiltzaileen gurasoen helbide elektronikoetara ere bidaltzen dira, ele biz.

Kanpainak

Matrikulazio kanpaina urtean behin egiten da, irailero. Ttipi Ttaparekin batera matrikulazio kanpainako diptikoa (euskara nagusi -%70-) eta inprimakia (euskaraz) banatzen da.

Bestalde, aurrematrikulaziorako erabiltzaileei edota euren gurasoei, matrikulatzeko epeak eta matrikularako inprimakia bidaltzen zaie. Horrez gain, prentsa ohar bat bidaltzen da ohiko hedabideetara, ele biz. Ohiko hedabideak honakoak dira: Ttipi Ttapa, Diario Vasco, Diario de Noticias eta Diario de Navarra.



UEMAren irizpidea

Udalaren iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko, ondoko jarraibideak beteko dira, betiere indarrean dagoen legedia errespetatuz:

- 1) Udalaren eta beraren menpeko erakundeen idazki orotan euskara erabiliko da beti. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.*
- 2) Udalerrian zabaldu beharreko agirietan ere euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.*
- 3) Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiliko da.*
- 4) Sortze hizkuntza euskara izango da, horretarako gaitasuna duten langileentzat.*
- 5) Arreta berezia jarriko zaio udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari, beti ere komunikagarritasuna errazteari begira. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriak argiak eta ulergarriak izan behar dute.*
- 6) Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira.*

5. Argitalpenak

Argitalpenei dagokienez, Udalak bere kabuz edo beste eragile batzuekin batera argitaratutako euskarrietako euskararen erabilera aztertu dugu (esku-orriak, liburuxkak, ikus-entzunezko baliabideak...).

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Oro har, argitalpen gutxi egiten da; ohikoen artean, soilik, urteroko bestetako programaren liburuxka dago. Bestetako programa euskaraz argitaratzen da, programa beraren orrialde bateko gaztelaniazko laburpenarekin bukaeran. Alkatearen agurra ele biz egiten da. Horrez gain, liburuxkan herritarren idatziak ere argitaratzen dira eta gehienek, gaztelaniaz bideratzen dituzte, baita ele biz eta euskarazkorik ere. Programan Udalak herritarren parte hartzerako baldintzen artean euskarazkoei lehentasuna ematen badie ere, gehiago dira gaztelaniaz bidaltzen dutenak eta hala argitaratzen dira oraindik.

Tarteka argitaratzen diren argitalpenei dagokienez, turismo alorrekoak daude. Adb., azkemnaldian argitaratu direnen artean dago San Migel Zubiaren II.



mendeurrenekoa. Argitalpen eleanitza izan da, hiru hizkuntzetan, euskarari lehentasuna emanaz, baina leku bertsuakin.

KULTURA ZERBITZUA

Normalean ez da Kultur arloko argitalpenik egiten.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Soilik, urteroko matrikulazio kanpainarako diptikoa argitaratzen da ele biz (euskara %70).

UEMAren irizpidea

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra argitalpenetan beti euskara erabiltzea da, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

6. Adierazpenak

Adierazpenei dagokienez, Udalak egindako adierazpen instituzionaletako edo udal ordezkari politikoek egindako adierazpenetako euskararen erabilera aztertu dugu, ahozkoa zein idatzizkoa.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA- arduradun politikoak-

Azkenaldian izan direnak euskaraz egin dira: liburu baten aurkezpenekoa eta fusilatuen aldeko ekitaldikoa.

KULTURA ZERBITZUA

Ez da horrelakorik egiten.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da horrelakorik egiten.

UEMAren irizpidea

Ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala. Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.



2. UDALAREN BARNE HARREMANAK

Berako Udalak barne harremanetan euskara zenbat eta nola erabiltzen duen aztertu dugu. Horretarako, hainbat alor hartu ditugu kontuan:

1. Ahozko barne harremanak
 - a. Horizontalak
 - b. Bertikalak
2. Idatzizko barne harremanak



1. Ahozko barne harremanak

Ahozko harremanak aztertzerakoan kontuan hartu dira Udaleko barne harreman horizontalak zein bertikalak.

Harreman horizontalei dagokienez, udal langileek euren artean zein udal ordezkariak euren artean euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu.

Harreman bertikalei dagokienez, kontuan hartu dugu udal ordezkariak udal langileekin ahozkoan erabiltzen duten harreman hizkuntza, baita udal langileek udal ordezkariekin erabiltzen dutena ere.

Egoeraren analisisia

IDAZKARITZA ETA KULTURA ZERBITZUA

Harreman horizontalei dagokienez, udal langileek euren artean euskaraz aritzen dira, bai telefonoz zein aurrez aurre, bai barne bileretan.

Udal ordezkarien arteko harremanak, berriz, aurrez aurrekoan eta telefono bidezkoan euskaraz izaten dira, ordezkari batekin izan ezik. Ordezkari horrekin gaztelaniaz izaten dira, ez baitaki euskara. Lan bilerei dagokienez, Gobernu batzordea eta batzorde gehienak (Euskara, Mendiak, Gizarte gaiak eta Berdintasuna, eta Hirigintza) euskaraz dira. Osoko Bilkurak eta Ogasun batzordeak ele biz (euskara %70) izaten dira ordezkari erdaldunak bilera horietan parte hartzen duelako.

Bai horizontalak (udal langileen artekoak, udal ordezkarien artekoak eta lan bileretakoak -Osoko Bilkurak, batzorde informatiboak eta bestelakoak-), bai bertikalak (udal ordezkariak udal langileei eta udal langileak udal ordezkariak) euskaraz izan ohi dira, normaltasunez.

Harreman bertikalei dagokienez, langileen eta ordezkarien arteko harremanak euskaraz izaten dira, ordezkari erdalduna tarteko ez bada. Berarekin gaztelaniaz aritzen dira langileak, bere presentzia ohikoa ez bada ere.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Langileen arteko ahozko harremanak, oro har, euskaraz (%70) izaten dira, bai telefonozko harremanetan, aurrez aurrekoetan (bileretan), bai bestelakoetan.

Zenbait langileek udal ordezkariekin dituzten harremanak euskaraz izaten dira; normalean, telefonozkoak edota noizean behin bileren batean.



UEMAren irizpidea

Telefonoz eta aurrez aurrekoan lehenengo hitza euskaraz izango da.

Udal bileretako hizkuntza nagusia euskara izango da.

Lan ordutegiko ahozko harremani dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilaren beste aldean zein kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskara prestijiatu egiten du. Hori dela eta, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du udalak.

Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan kontuan hartuko da udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela udalaren helburua.

2. Idatzizko barne harremanak

Idatzizko barne harremanak aztertzeko, barneko funtzionamenduan erabiltzen diren idazki motak aztertu dira: erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan eta ez ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza, erabilera planaren eraginpeko langileek sortutako eta hedatutako komunikazioen hizkuntza, harreman formaletan sortutako eta hedatutako komunikazioen hizkuntza eta, azkenik, langileen harreman informaletako euskararen erabilera.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

- **Barne zirkularrak edo udal langileen arteko idazkiak:** ez dira barne idazki asko, soilik lan egutegia eta barneko komunikazioen bat edo beste (gutxitan) eta jai egunak eskatzeko inprimakia. Lan egutegia euskaraz badago ere, azalpenak ele biz daude; barneko komunikazioak gutxitan baina, euskaraz zabaltzen dira; eta, azkenik, jai egunak eskatzeko inprimaki ereduak ele biz dago.
- **Udal langileen nominak eta kontratuak:**
Nominak eta kontratuak
Montepioko funtzionarioen nominak (eskolako kontserjea, mendizaina, administrari bat eta idazkaria) udalean egiten dira ele biz. Gainerakoak, aholkularitza enpresa batek (Iriarte-Etxandi) egiten ditu gaztelaniaz.

Udal langileen kontratuak, berriz euskaraz egiten dira.



➤ **Lan bileretatik eratorritako dokumentuak:**

Bilera deiak

Gobernu batzordekoak euskaraz sortu eta zabaltzen dira; Osoko Bilkuretakoak, berriz, euskaraz sortzen dira, baina zabaltzeko garaian ordezkari erdaldunari soilik zabaltzen zaizkio ele biz, berak gaztelaniazko eredu eskatzen duelako. Gainerakoei euskarazko eredu zabaltzen zaie.

Aktak

Gobernu batzordeko eta Osoko Bilkuretako aktekin ere bilera deiekin bezala jokatzeko da.

➤ **Txosten motzak (1-2 or.) zein luzeak (3.or-...)**

Udal txostengileak idazkaria, kontu hartzailea, eta, oro har, hainbat kanpo zerbitzu teknikariak dira; esate baterako, arkitektoa (NASUVINSA), katastroko teknikaria (ESTUDIO 5), udal obretako teknikaria (EKOLAN) eta aholkulari juridikoa dira. Gehienak, beraz, Udalaren zerbitzuetarako enpresak dira.

Idazkariaren eta kontu hartzailearen txostenak gaztelaniaz sortzen eta zabaltzen dira eta, normalen, udal espedienteetakoak izaten dira. Bestelako kanpo zerbitzu teknikarietarako txostenek dagokienez, hirigintzako teknikarietarako gehienbat ele biz zabaltzen dituzte; katastrokoak eta aholkulari juridikokoak, berriz, gaztelaniaz.

➤ **Memoriak:** ez dira egiten; soilik turismo alorrekoak edo kulturakoak, biak ala biak euskaraz.

➤ **Proiektuak:** Ez dira egiten.

➤ **Idatzizko oharra eta e-postak:** euskaraz sortu eta zabaltzen dira.

KULTURA ZERBITZUA

➤ **Barne zirkularrak edo udal langileen arteko idazkiak:**

Idazkaritzan daudenak dira. Lan egutegia euskaraz badago ere, azalpenak ele biz daude; barneko komunikazioak gutxitan baina, euskaraz zabaltzen dira; eta, azkenik, jai egunak eskatzeko inprimaki ereduak ele biz dago.

➤ **Udal langileen nominak eta kontratuak:**

Nominak eta kontratuak

Nominak gaztelaniaz jasotzen ditu kultur teknikariak. Kontratuak egin behar izanez gero, lan aholkularitza enpresak (Iriarte-Etxandi) euskaraz egiten ditu, baina Kultura zerbitzuan ez da horrelakorik egin aspaldian.



➤ **Lan bileretatik eratorritako dokumentuak:**

Bilera deiak

Kultura Batzordekoak euskaraz sortu eta gehienbat euskaraz (%90) zabaltzen dira. Gainerakoak ele biz (%10).

Aktak

Aktak euskaraz sortu eta zabaltzen dira.

➤ **Txosten motzak (1-2 or.) zein luzeak (3.or-...)**

Soilik txosten motzak sortzen eta zabaltzen dira, euskaraz.

➤ **Memoriak:** euskaraz sortzen eta zabaltzen dira

➤ **Proiektuak:** Ez dira egiten.

➤ **Idatzizko oharrak eta e-postak:** euskaraz sortu eta zabaltzen dira.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

➤ **Barne zirkularrak edo udal langileen arteko idazkiak:**

Ia ez dago horrelakorik. Soilik, lan egutegia eta euskaraz dago.

➤ **Udal langileen nominak eta kontratuak:**

Lan aholkularitza enpresa batek (Ugaldea) egiten ditu. Nominak zein kontratuak gaztelaniaz egiten dituzte, aplikazioa gaztelaniaz dutelako (Gizarte Segurantza- Red sistema).

➤ **Lan bileretatik eratorritako dokumentuak:**

Bilera deiak eta aktak

Euskaraz sortu eta zabaltzen dira.

➤ **Txosten motzak (1-2 or.) zein luzeak (3.or-...)**

Soilik motzak egiten dira; euskaraz sortzen eta zabaltzen dira.

➤ **Memoriak:** Ez dira egiten.

➤ **Proiektuak:** Ez dira egiten.

➤ **Idatzizko oharrak eta e-postak:** euskaraz sortu eta zabaltzen dira.

UEMAren irizpidea



Hemen adierazten diren jarraibideak dira memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuetarako batez ere, eta, erabili beharreko hizkuntza ofiziala dela-eta, legezko xedapenek ezartzen ez dituzten bestelako idatzizko jarduketetarako.

Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek. Eta udalaren helburua izango da Udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izatea.

Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, herritarrekin egiten den bezala, agiri hori itzuli egingo zaio; betiere, jatorrizkoa euskarazkoa dela eta gaztelaniazkoa itzulpena dela argi utziz.



3. UDALAREN KANPO HARREMANAK

Kanpo harremanetan, Berako Udalaren euskararen erabilera aztertu dugu, kanpoko eragileekiko harremanetan. Bi alor aztertu ditugu: ahozkoak eta idatzizkoak. Horrez gain, beste alor hauek ere aztertu ditugu: zerbitzu enpresak eta hornitzaileak, diruz lagundutako elkarte eta jarduerak eta udal baimenak.

Honela egituratu dugu informazioa:

1. Ahozko kanpo harremanak

a. Herritarrekin

- Lehenengo hitza
- Telefono bidezko harrerak
- Bilerak
- Jendaurreko ekitaldiak
- Hedabideen aurreko agerraldiak

b. Erakunde publikoekin

- Telefonoz
- Aurrez aurrekoak (bilerak, aurkezpenak...)

c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

- Telefonoz
- Aurrez aurrekoak (bilerak, aurkezpenak...)

2. Idatzizko kanpo harremanak

a. Herritarrekin

- Hartzaile jakinik gabeko idatziak / Orokorrak
- Hartzaile jakinenetzako idatziak / Pertsonalizatuak

b. Erakunde publikoekin



- EHko tokiko erakundeak
- EHko bestelako erakundeak
- EHTik kanpoko erakundeak

c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

3. Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak
4. Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak
5. Udal baimenak



1. Ahozko kanpo harremanak

Ahozko kanpo harremanei dagokienez, solaskideen arabera sailkapena egin dugu. Lehenengo, herritarrekiko harremanak aztertu ditugu; gero, gainerako erakunde publikoekikoak; eta, azkenik, gainerako eragileekikoak (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...).

Bestetik, erakunde publikoekin eta bestelako eragileekin aurrez aurreko harremanak eta telefono bidezkoak zein hizkuntzatan izaten diren aztertu dugu.

a. Herritarrekin

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek herritarrekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu. Horretarako, hainbat egoera hartu ditugu kontuan: lehenengo hitza, telefono bidezko harrerak, bilerak, jendaurreko ekitaldiak eta hedabideen aurreko agerraldiak.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

- **Lehen hitza aurrez aurreko zein telefono bidezko harremanetan**
Herriko etxeko sarreran, idazkaritzan zein alkatetzan lehen hitza, telefonoz zein aurrez aurre, euskaraz izaten da. Baita Bortzirietako Mankomunitateko zerbitzuetan ere (Euskara, Hiri hondakinak eta Gizarte zerbitzuak).
- **Bilerak**
Oro har, herritarren hizkuntza hautuaren arabera dira. Partaide askokoak badira, %45 euskaraz eta %55 gaztelaniaz izaten dira, tartean erdaraz aritzen direnak badirelako. Dena den, azkenaldian izan direnak honakoak dira: obra bati buruzkoa (euskaraz), udal plan aldaketeta bati buruzkoa (euskaraz), etorri berri batekin (gaztelaniaz) eta beste herritarren batekin (euskaraz) izandakoak dira.
- **Jendaurreko ekitaldiak**
Normalean euskara lehenetsiz ele biz egitea da udalaren irizpidea. Halere, azkenaldian izan direnak euskaraz egin dira: liburu baten aurkezpenekoa eta fusilatuen aldeko ekitaldikoa.
- **Herritarrentzako ikastaroak**
Idazkaritzatik ez dira horrelakoak bideratzen.
- **Hedabideen aurreko agerraldiak**



Udalak ez du bere kabuz prentsaurrekorik egiten normalean. Zenbaitetan beste herri batzuetako udal ordezkariekin batera egiten diren agerraldietan parte hartzen du eta normalean, herritik kanpo: Iruñean, Beran, Elizondon... Eskualdekoak euskaraz diren arren Iruñean egiten direnak idatziak bi hizkuntzetan egiten dira.

Bortzirietan egiten direnetan, tokiko hedabideak agertzen dira normalean eta kasu horretan euskaraz izan ohi dira. Dena den, bestelako hedabideetara zabaltzen den informazioa ele biz bideratzen da. Euskaraz funtzionatzen ez duten hedabideak agertuz gero, ele biz egiten dira.

KULTURA ZERBITZUA

- **Lehen hitza aurrez aurreko zein telefono bidezko harremanetan**
Kultur Etxean lehen hitza, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izan ohi da.
- **Bilerak**
Normalean Kultur batzordekoak egiten dira eta, noizbehinka guraso elkarteekin (herri eskola, ikastola, mojak eta institututa) ere egiten dira. Euskaraz izan ohi dira, normalean.
- **Jendaurreko ekitaldiak**
Gutxitan egiten dira, baina egiten direnean (aurkezpenen bat edo beste) nagusiki euskaraz (%80) izan ohi dira.
- **Herritarrentzako ikastaroak**
Gutxitan antolatzen dira, baina antolatzen direnean euskaraz eskaintzen dira (irakasle euskaldunak). Azkenaldian bakarrik taloak egiteko tailerra eskaini da euskaraz.
- **Hedabideen aurreko agerraldiak**
Gutxitan egiten dira, baina eginez gero, ele biz egiten dira. Azkenaldian ez da agerraldirik egin.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

- **Lehen hitza aurrez aurreko zein telefono bidezko harremanetan**
Euskaraz izan ohi da.
- **Bilerak**
Bilera orokorren artean ikasturte hasieran ikasleen gurasoekin egiten den Bilkura Nagusia nagusiki euskaraz (%80) egiten da.

Bestalde, urtean zehar iraklasle bakoitzak ikasleen gurasoekin izaten direnak, gurasoen hizkuntza hautuaren arabera izaten dira.



➤ **Jendaurreko ekitaldiak**

Ele biz izaten dira, euskara lehenik eta gero gaztelania. Urtean hiruzpalau kontzertuetakoa eta urtean zeharreko audizioetakoak izan ohi dira. Noizbait euskara hutsez ere egin da pianoko audioetan, besteak beste.

➤ **Musika ikasteko eskolak**

Haurren eskolak izaten dira gehien eta horiek euskaraz dira. Helduenak, berriz, hizkuntza hautuaren arabekoak. Halere, esan genezake %40 euskaraz direla eta gainerakoak gaztelaniaz.

➤ **Hedabideen aurreko agerraldiak**

Ez dago horrelakorik.

UEMAren irizpidea

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrak espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala. Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

b. Erakunde publikoekin

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek gainerako erakunde publikoetako solaskideekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu, maiztasunaren arabera sailkatuta.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Oro har, ahozko harreman gehien inguruko udalekin (Bortziriak, Malerreka, Baztan) zein mankomunitateekin (Euskara, Gizarte zerbitzuak, eta Hiri hondakin solidoen kudeaketa) izan ohi dira. Harreman horiei dagokienez, euskaraz izan ohi dira, bai aurrez aurrekoak, bai telefono bidezkoak.



Bestalde, telefonozko harremanei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren hainbat departamenturekin (Toki administrazioa, Ingurmen eta Ogasun Departamentuak, eta Lurralde Antolamendua) ere izan ohi dira harremanak. Nafarroako Gobernuko solaskideekin dituzten ahozko harremanen % 90 erdaraz egiten dira, solaskideak erdaldunak izan ohi direlako. Oso tarteka topatzen dute solaskide euskaldunik.

Aurrez aurrekoei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren herri lanetako Departamentuarekin, hirigintzakoarekin, Toki Administrazioarekin eta Berako osasun zentroko langileekin egiten diren bilerak gaztelaniaz izan ohi dira. Izan ere,

Departamentu askotako arduradun eta teknikariek dute harremana, bai telefonoz eta bai aurrez aurreko bileretan eta aurkezpenetan.

Azkenik, Nafarroako Udal eta kontzejuen Federazioarekin izaten diren ahozko harremanei dagokienez, telefono bidezkoak edo aurrez aurrekoak gaztelaniaz izan ohi dira.

KULTURA ZERBITZUA

Kultura eta Turismo zerbitzutik telefono bidezko harremanetan Bortzirietako udalekin zein mankomunitateekin (Euskara, Gizarte zerbitzuak, eta Hiri hondakin solidoen kudeaketa) izaten da harreman gehien. Halere, Nafarroako bestelako toki erakundeekin ere izaten da harremanik, euskaraz zein gaztelaniaz. Baita EAekomudalekin ere, baina euskaraz soilik.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren (NG) Kultura Departamentukoekin ere izaten da harremanik, baina, normalean, gaztelaniaz (%90).

Azkenik, bilerei edo aurrez aurreko harremanei dagokienez, ia ez da halakorik. Noizbait NGko Kultura Departamentukoekin edo Nafarroako Kultur teknikariek eginiko bileraren bat edo bestetan izan da eta bilera horiek gaztelaniaz izan dira.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da erakundeekiko ahozko harremanik.

UEMAren irizpidea

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatuko da. Hala, gure udalaren eta beste erakunde



publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzeko, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du udalak.

c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek eragileetako solaskideekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu, maiztasunaren arabera sailkatuta.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Telefonoz zein aurrez aurreko harremanik gehien herriko eragileekin, taldeekin edo elkarteekin izaten dira. Besteak beste, ikastetxeekin, Larun Ahizpe merkatarien elkartearekin eta Gure txokoa elkartearekin euskaraz eta kirol elkarteekin, oro har, ele biz.

KULTURA ZERBITZUA

Telefono bidezko harreman gehien Gure Txokoa elkartearekin, Berako abesbatzarekin eta Ertz artegunearekin izaten dira, euskaraz.

Gainerakoan, kultur alorreko aurrez aurreko harremanak herriko eragileekin izaten dira, soilik Kultura batzordean.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Eragileekiko ahozko harreman gutxi dago. Soilik, Nafarroako Musika eskolen elkartearekin (ASEMNA). Euren dagokienez, haiekin telefonozko kontsultak zein bilerak egin izan dira, oro har, gaztelaniaz.

UEMAren irizpidea

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo hitza euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Eragileen aurreko agerraldietan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala. Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.



2. Idatzizko kanpo harremanak

Idatzizko kanpo harremanei dagokienez, ahozko kanpo harremanetan bezala, herritarrekin, erakunde publikoekin eta eragileekin izan ohi diren idatzizko komunikazioak zein idazki motak zein hizkuntzatan izaten diren aztertu dugu, bai paperekoak bai telematikoak.

a. Herritarrekin

Idatzizko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz Udaleko ordezkari politikoek herritarrekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu. Horretarako, hartzailearen arabera banaketa egin dugu: batetik, hartzaile jakinik gabeko idatziak (orokorrak) aztertu ditugu, eta, bestetik, hartzaile jakinentzako idatziak (pertsonalizatuak).

Egoeraren analisia:

IDAZKARITZA

➤ **Hartzaile jakinik gabekoak (orokorrak)**

Herritarrentzako bandoak eta oharrak edo abisuak, oro har, euskaraz jartzen dira, udal iragarki taulan izan ezik. Iragarki taulan jartzen diren udalaren agiri guztiak ele biz jartzen dira, aurreko urteetako euskararen erabilera planaren jarraipenean adostu bezala. Iragarkiak edo deialdiak, soilik iragasrki taulan jartzen dira; beraz, ele biz. Inprimakiak, berriz, euskaraz zein ele biz daude. Euskarazkoa eskaintzen da lehentasunez, eta herritarren batek gaztelaniazkoa eskatuz gero, elebitakoa eskaintzen zaio. Gainerakoan, ez da bestelako agiririk zabaltzen.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatekoak zein Hiri hondakin Solidoak kudeatzeko Mankomunitatearen komunikazio ofizial oro, berriz, ele biz izan ohi da.

➤ **Hartzaile jakinentzako idatziak**

Agiri errazak zein konplexuak izan, herritarrek euskaraz egindako eskaera baten erantzuna denean euskaraz erantzuten zaio, eta gaztelaniaz egindako eskaera baten erantzuna denean bi hizkuntzetan.

KULTURA ZERBITZUA

➤ **Hartzaile jakinik gabekoak (orokorrak)**

Euskara batzordeko deialdiak, oro har, euskaraz zabaltzen dira. Soilik kide bati eskaintzen zaio elebitakoa. Inprimakiak, berriz, euskaraz zein ele biz daude. Euskarazkoa eskaintzen da lehentasunez, eta herritarren batek gaztelaniazkoa eskatuz gero, elebitakoa eskaintzen zaio. Gainerakoan, ez da bestelako agiririk zabaltzen.



- **Hartzaile jakinentzako idatziak**
Ez da horrelakorik.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

- **Hartzaile jakinik gabekoak (orokorrak)**
Aurrematrikulazioko inprimakiak lehenetasunez euskaraz eskaintzen dira, baina bada elebitakorik ere, gaztelaniazkoa eskatzen duenarentzat. Oharrak ele biz zabaltzen dira, puntualak izaten dira. Ikasturteko notak, berriz, euskaraz nagusiki (euskara %80 eta gaztelania %20)
- **Hartzaile jakinentzako idatziak**
Idazkaritzan bezalaxe euskarazko eskariei euskaraz erantzuten zaie eta gaztelaniazkoei ele biz.

UEMAren irizpidea

Harrerako mahaian... udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak (inprimakiak...), eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak herritarraren arabera euskarazkoa edo, erdaldun elebakarra baldin bada, ele bietakoa emango dio.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein Nafarroako Foru Komunitatekoak, udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorritz gero, udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Etxera bidaltzen diren agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 18/1986 Euskaren Foru Legeari kalterik egin gabe.

b. Erakunde publikoekin

Idatzizko kanpo harremanen baitan, Udalak erakunde publikoetatik jasotako agiriak eta erakunde publikoetara igorritako agiriak aztertu ditugu, euskara zenbat eta nola erabiltzen duten jakiteko. Erakundeak esparruaren arabera sailkatu ditugu: EHko tokiko erakundeak, EHko bestelako erakundeak eta EHTik kanpoko erakundeak.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

- **Euskal Herriko tokiko erakundeak**



Harreman gehien inguruko udalekin (Baztan, Malerreka eta Bortziriak) eta mankomunitateekin izan ohi da eta horietatik, gehienbat, euskarazkoak (%80) eta bi hizkuntzetakoren batzuk (%20) jasotzen dira.

Dena den, inguruko herrietako udasletatik at ere jasotzen dira agiriak, gehienak ele biz, baina euskarazkorik ere jasotzen da (%5).

Udalak erakundeei euskaraz (%30 inguruko herrietara eta mankomunitateetara) eta ele biz (%70 gainerakoetara) bidaltzen dizkie agiriak.

➤ **Euskal Herriko bestelako erakundeak**

Nafarroako Gobernu departamentuetatik eta zerbitzuetatik, oro har gaztelaniaz jaso ohi dira agiriak. Halere, Hezkuntza departamentutik, tarteka, ele biz ere jaso ohi dira, %5.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik (NUKF), berriz, ele biz.

Udalak, erakunde horiei bidali beharreko agirieei dagokionez, Nafarroako Gobernura eta NUKFera (gutxitan) ele biz jokatzen du. Halere, Nafarroako gobernura bideratzen dituen espedienteetako txostenak eta memoriak gaztelaniaz bideratzen ditu.

➤ **Euskal Herritik kanpoko erakundeak**

Batez ere Gobernu Ordezkaritzatik, Gizarte Segurantzatik (ediktuak) eta Kantauriko edo Ebroko Ur Konfederaziotik jasotzen dira agiriak, gaztelaniaz. Dena dela, duela gutxi Kantauriko Ur konfederaziotik bidaltzen dituzten agiriak ele biz bidaltzen hasi dira.

Udalak igortzen dituen artean daude Gobernu Ordezkaritzara bidaltzen dituenak eta Ur konfederaziora bidaltzen dituenak ele biz bidaltzen ditu.

KULTURA ZERBITZUA

Erakunde publikoekiko harremanik ez da.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Erakunde publikoekiko harremanik ez da.

UEMAren irizpidea

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde



ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko dira. Haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta beraiengandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da, egun indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Horrenbestez, horietako batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero—, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da. Horrez gain, jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da.

Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti, 18/1986 Euskararen Foru legeari kalterik egin gabe. Administrazio hauengandik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da. Horrez gain, jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da.

c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

Idatzizko kanpo harremanen baitan, Udalak hainbat eragilerengandik jasotako agiriak eta eragile horiei igorritako agiriak aztertu ditugu, euskara zenbat eta nola erabiltzen duten jakiteko.

Egoeraren analisisia

IDAZKARITZA

➤ Herrikoak

Idatzizko harreman gehien ikastetxeeekin, Gure Txokoa elkartearekin, kirol arloko elkarteekin eta Gaztetxearekin izan ohi da. Ia denek euskaraz bideratzen dituzte agiriak. Soilik kirol arloko elkarte batzuk bideratzen dituzte ele bietan (%20).

Udalak ere euskaraz bidaltzen dizkie idatziak eurekin euskaraz egiten duten herriko eragile guztiei. Gainerakoei, ele biz.

➤ Euskal Herrikoak

Soilik Ziburuko Jakintza taldearekin izaten dira harremanak. Harremanak ele biz izaten dira, bai eurengandik jasotakoa, bai eurei bidalitakoa.

➤ EHtik kanpokoak

Ez da harremanik HETik kanpoko eragileekin.



KULTURA ZERBITZUA

Ez da idatzizko harreman formalik. Horrelakoak Idazkaritza sailetik bideratzen dira. Soilik e-posta bidez izaten dira idatzizko harremanak herriko eragileekin.

ISIDORO FAGOGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da idatzizko harremanik inolako ereagileekin.

UEMAren irizpidea

Eragileentzako agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...) euskara erabiliko da beti. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 18/1986 Euskararen Foru legeari kalterik egin gabe.

d. Bestelakoekin

Idatzizko kanpo harremanen baitan, aurreko puntuetatik at geratu diren bestelako talde, erakunde eta abarrak aztertu ditugu.

Egoeraren analisia

Idazkaritzak, Kultura Zerbitzuak zein Isidoro Fagoaga Udal Musika eskolak ez du bestelako erakundeekin harremanik.

UEMAren irizpidea

Bestelakoekin ere eragileekin zehaztutako irizpideei jarraituko die Udalak.

3. Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak

Udal zerbitzu enpresen eta hornitzaileen harremanak aztertzeko, lehenik, udal zerbitzu enpresak eta hornitzaileak hiru multzotan sailkatu ditugu. Sailkapen hori egin ondoren, Udalak eurekin eta eurak Udalarekin duten harreman hizkuntzari dagozkion datuak bildu dira.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA (Kultura zerbitzuak eta Udal Musika eskolakoak ez daude)

Udalarekin lotura duten enpresek edo hornitzaileek udalarekiko duten harremanei dagokienez, oraindik asko dira idatziz zein ahozko harremanetan gaztelania



erabiltzen dutenak. Ohiko hornitzaileek, berriz, batez ere faktura gehienak gaztelaniaz bideratzen dituzte.

Oro har, ez da hizkuntza baldintzarik txertatzen baldintza agiridun zerbitzuetan. Soilik, jenadurreko zerbitzua eskaintzen duten esleipen batzuetan: kiroldegiko eta haur eskolako zerbitzuen esleipenetan sartu da hizkuntza baldintza:

Kirol instalazioak:

“Langile guztiek euskara jakin beharko dute, gutxienez ahozkoan, eta Udalarekiko koordinazioan eta harremanetan arituko diren langileei dagokienez, ahozkoan ez ezik idatzizkoan ere gaitasun nahikoa izan beharko dute.”

Haur eskola

“Hezitzaile taldeko profesionalak kontratua sinatua aurretik EGA edo baliokidea den hizkuntza gaitasuna ziurtatua izan beharko dute. Instalazioen garbiketarako edo laguntzarako langileek, gutxienez, euskararen ahozko gaitasuna ziurtatu beharko dute. Hezitzaileek, garbiketako langileek edo laguntzaileek aipatu mailak izango ez balituzkete, bakoitzari dagokion euskara proba egin ahal izanen lukete.”

Azkenik, herritarrekin harremana duten zerbitzuen hizkuntza erabilerari dagokienez, euskararen erabilera ez dago bermatua. Izan ere, badira zerbitzu batzuk gaztelaniaz eskaintzen direnak. Esate baterako, katastro eta ingurumen teknikariak, arkitektoa (idatzizkoan-Nasuvinsa), ur kontsumoa neurtzen duten langileak...

Ikus. 1 eranskina: BERAKO UDALAREKIN LOTURA DUTEN ENPRESAK ETA HORNITZAILEAK

UEMAren irizpidea

1. Zerbitzu enpresak

Kontratua sinatu aurretik, euskarazko baldintza-agiriak prestatu eta zabalduko dira.

Kontratazio guztietan udalak pleguen bidez, horiek behar diren kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak udalean euskaraz ere aritu beharko duela.

Zerbitzu enpresei bidalitako agiriak euskaraz bidaliko dira.

Zerbitzu enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

2. Hornitzaileak



Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketara eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua...), euskararen baldintza zehaztuko da.

Kontratazio administratiboak

Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean honako neurriak hartuko dira:

- *Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atentituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.*
- *Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.*
- *Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntza baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntza gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez badira, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.*

4. Diru-laguntzak

Gizarte zerbitzuetakoak ez, beste diru-laguntzak esleitzerakoan –kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat-, udalak kontuan izango du eskatzaileak eskaera egiteko zein zerbitzua ematean daukan euskararen erabilera eta, zehazkiago, ondorengo eskatuko da:

Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, 18/1986 Euskararen Foru Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).

Diru-laguntzaren xede den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea.

Diru-laguntzaren xede den ekintzaren publizitatean ere euskara erabiltzea.

Beheragoko orrialdeetan hirigintza alorreko udal-baimenetako hizkuntza irizpideak jorratzen dituen puntuen eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola diruz lagundu beren jardunbideko errotulazioa gaztelaniatik euskara aldatzen duten establezimenduetan.

Diru-laguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitekeen hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezke.



4. Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak

Udalak ematen dituen diru-laguntzei dagokienez, bi alor aztertu ditugu: batetik, Udalak funtzionamendurako elkarte edo taldeei ematen dizkien diru-laguntzak, eta, bestetik, talde edo elkarte horiek Udalaren diru-laguntzaz eskaintzen dituzten ekintzekin lotutako hizkuntz erabilera (ekintzaren ahozko jarduna, propagandaren hizkuntza...).

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Kultur arloko ez gain, soilik, Toki Ona saski baloi taldea laguntzen du. Talde horrek gehienbat euskaraz funtzionatzen du; udalarekiko ahozko harremanetan, euskaraz zein gaztelaniaz aritzen da, baina idatzizkoan euskaraz.

KULTURA ZERBITZUA

Udalak diruz gehien laguntzen dituen elkarteak honako hauek dira: Gure Txokoa elkarteak, Ertz artegunea eta Berako abesbatza. Gure Txokoa elkarteak eta Ertz arteguneak euskaraz funtzionatzen dute, eta naturaltasunez erabiltzen dute euren ekitaldietan eta udalarekiko harremanetan. Berako abesbatzak, berriz, bere ekitaldietan euskara zein gaztelania erabiltzen du; propaganda ele biz egiten du eta udalarekiko harremanetan euskaraz eta gaztelaniaz aritzen da ahozkoan eta ele biz idatzizkoan.

Udalak ez ditu bestelako ekintzak edo jarduerak diruz laguntzen.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da diru laguntzarik bideratzen.

UEMAren irizpidea

Gizarte zerbitzuetaoak ez, beste diru-laguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat—, udalak kontuan izango du diruz lagunduko den jardueraren hizkuntza. Zehazki, ondorengo eskatuko du:

- *Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea.*
- *Diru-laguntzaren xede den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea.*
- *Diru-laguntzaren xede den ekintzaren publizitatean ere euskara erabiltzea.*



- *Beheragoko orrialdeetan hirigintza alorreko udal-baimenetako hizkuntza irizpideak jorratzen dituen 2) puntuaren eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola diruz lagundu beren jardunbideko errotulazioa gaztelaniatik euskarara aldatzen duten establezimenduetan.*
- *Diru-laguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatuko balitz, hizlari elebidunak hobestea, - hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea-euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatzen daitez.*

5. Baimenak

Baimenei dagokienez, udal baimenetan hizkuntza irizpiderik txertatzen den aztertu dugu. Baimenak hiru multzotan sailkatu ditugu: hirigintza baimenak (irekiera baimenak, obra baimenak, lehenengo erabilera baimenak...), udal instalazioak erabiltzeko baimenak, udalerriko espazio publikoa erabiltzeko baimenak eta jaietako postuak eta txosnak jartzeko baimenak.

Egoeraren analisia

➤ Hirigintza baimenak

IDAZKARITZA

Obra handietako baimenetan gomendioa egiten da eta euskarazko kartel ereduak eskaintzen da, obraren arloko datuak euskaraz bistan jartzeko, baina jarraipenik ez da egiten.

➤ Udal eraikinak/ udalerriko espazioak erabiltzeko baimenak

KULTURA ZERBITZUA (Kultur Etxea eta Beralandeta erabiltzeko baimenak)

Udal eraikinak erabiltzeko baimenak ematerakoan ez da irizpiderik txertatzen. Dena dela, udal instalazioetan egiten diren jendaurreko ekintza edo jarduera gehienak euskaraz izan ohi dira (%70). Ele bietan %10 eta gaztelaniaz (%20).

➤ Jaietako postuak eta txosnak jartzeko baimenak

IDAZKARITZA

Oro har, ez da inolako hizkuntza baldintzarik ezartzen.

Bestetan etortzen diren feriantekin kontratu bat sinatzen da, feriagunearen banaketa egiteko. Feriante batzuk, dena den prezioen errotuluak ele biz jartzen



dituzte (%40) eta gainerakoek gaztelaniaz. Jartzen duten musikari dagokionez, euskal musikaririk ez dute jartzen normalean.

Gainerakoan, salmenta postuak jartzeko baimenak eta tsosnak jartzeko baimenak ematen dira. Salmenta postuek ez dute inolako errotulaziorik jartzen eta tsosnek, errotuluak jartzekotan, euskaraz jartzen dituzte eta musika ere bai.

UEMAren irizpidea

Hirigintza

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, ondorengo baldintzapean emango die: kale eta bide publikoetako hizkuntza erabileran bederen iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan, alegia euskara erabil dezatela.

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta, egotekotan, dauden laguntzen berri emango die.

Udal-instalazioak

Edozein delarik ere ekitaldia, udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan udalak laguntza eskainiko die euskara ere erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna...) hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Jaietako postuak

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenekin udalak hitzarmenak sinatuko ditu, haiek postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiekin batera euskararen baldintzak ere betetzeko helburuarekin eta udalak laguntza eskainiko die prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz ere jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.

Baimen eske datozen horiei udalarekin sinatzen duten hitzarmen horretan dauden hizkuntza jarraibideak betetzen laguntzeko, udalak hizkuntza aholkularitza eta laguntza teknikoak eskainiko dizkie hala eskatzen dutenei.

Bestelakoak

Bestelako baimenetan, hizkuntzari eragiten dioten neurrian, udalak bermatuko du jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz ere egongo direla.



4. UDAL BALIABIDEAK

Berako Udalaren baliabideen azterketa egiteko, alor hauek hartu ditugu kontuan:

1. Giza baliabideak

a. Hizkuntza gaitasuna

- Udal langileak
- Udal ordezkariak

b. Hizkuntza prestakuntza

c. Prestakuntza orokorra

2. Baliabide teknikoak

a. Tresna edo aplikazio informatikoak

- Aplikazio orokorrak
- Berariazko aplikazioak

b. Intraneta

c. Telefonia

- Telefono finkoetako erantzungailuak
- Telefono mobiletako erantzungailuak

d. Bestelako gailuak (megafoniako mezuak, hari musikala, irratia...)

3. Itzulpen baliabideak

4. Espediente ereduak

1. Giza baliabideak

Udalaren giza baliabideei dagokienez, udal langileak zein udal ordezkariak aztertu ditugu.



a. Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, langileek zein ordezkari politikoek euren jardunean nahikoa euskara maila duten aztertu dugu.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA ETA KULTURA ZERBITZUA

➤ **Udal langileak:**

Berako Udalean lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatu gabe duten udal lanpostu zerrendako langileak eskolako atezaina, zerbitzu anitzetako langile bat eta mendiko langilea dira. Langle horiek euren lanpostuak aspaldi eskuratu zituzten, eta euskaldun zaharrak direnez, ez dute inolako arazorik euren lan jardunetan euskaraz aritzeko.

Gainerakoan, udal lanpostu zerrendako gainerako langileek, berriz, eskuratua edo egiaztatuta dute eurei dagokien hizkuntz eskakizuna, eta gai dira lanpostuei dagozkien zereginak euskaraz burutzeko.

Udal lanpostu zerrendatik kanpo hartzen diren behin behineko langileei euren lanpostuaren araberrako hizkuntza proba egiten zaie. Lan anitzetako behin behineko langileen kasuan, ahozko trebetasuna eskatzen zaie soilik.

➤ **Udal ordezkariak**

11 udal ordezkarietatik 10 euskaraz funtzionatzeko gai dira. Bakarrak ez daki euskara eta udalaren euskarazko funtzionamendua oztopatzen du.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Administraria eta 11 irakasle aritzen dira jardunean. Administrariak EGA ziurtatua du eta beste 10 irakaslek ere bai. Irakasle bakarra da EGA ziurtagiririk ez duena, baina euskaldun zaharra da.

UEMAren irizpidea

Udal langileak:

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza eskakizunaren (HE) pareko euskara gaitasuna eskatuko die.



Beraz, edozein lanpostu legez hornitzeko, lanpostuaren arabera hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatu dezan.

Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen arabera HE ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den, ondorengo taulan adierazten den moduan, lanpostuaren arabera, kasuan kasuko kontratazioan eskatuko dena:

<i>Lanpostua</i>	<i>Ahoz</i>	<i>Idatziz</i>
<i>Idazkaria</i>	<i>C+</i>	<i>C1+</i>
<i>Berdintasunerako teknikaria</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Zerbitzu askotariko langilea</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Zerbitzu anitzetako arduraduna</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Kontu hartzailea</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Mantentze lanetako ofiziala</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Mendizaina</i>	<i>C1</i>	<i>B2</i>
<i>Ikastetxeko atezaina - Zerbitzu anitzak</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Kultura koordinatzailea</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Musika eskolako irakasleak</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Musika eskolako zuzendaria</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Administrari ofiziala</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Gordailuzain laguntzailea</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Albientea</i>	<i>C1</i>	<i>B2</i>
<i>Kultur etxeko langilea</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Garbitzailea</i>	<i>B2</i>	<i>A2</i>
<i>Zahar etxeko zuzendaria/zaindaria/orientatz./erizaina</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Zahar etxeko sukaldaria/garbitzailea</i>	<i>B2</i>	<i>A2</i>
<i>Zahar etxeko zerbitzu anitzetako langileak</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Euskara teknikariak</i>	<i>C2</i>	<i>C2</i>
<i>Gizarte langilea</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Hurtzaina, hurtzaindegian</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Kirolerako teknikaria</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Familia langileak</i>	<i>B2</i>	<i>B1</i>
<i>Hurtzaindegiko zuzendaria</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Hurtzaindegiko irakaslea/hurtzaina</i>	<i>C1</i>	<i>C1</i>
<i>Hurtzaindegiko sukaldaria</i>	<i>B2</i>	<i>A2</i>
<i>Peoia</i>	<i>B2</i>	<i>A2</i>
<i>Gidaria</i>	<i>B2</i>	<i>A2</i>
<i>Gidarien arduraduna</i>	<i>C1</i>	<i>B2</i>



Beharrezkoa denean, beraz, udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei eta kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sina daitezen sustatuko du.

Udal ordezkariak

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hautes-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak euskaldunak izateko.

b. Hizkuntza prestakuntza

Hizkuntza prestakuntzari dagokionez, langile guztiek hizkuntza prestakuntzarako zein hobekuntzarako eskaintako dedikazioa aztertu dugu.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Azken urte honetan, kontu hartzaileak egin du NAPIk kontu hartzaile lanpostuari begira eskeinitako prestakuntzarako ikastaroa. Ikastaro hori Baztango, Malerrekako Bortzirietako kontu hartzaileei eskaini zaie. Idazkarientzako ere beste bat eskaini dute, baina Berako idazkariak ez du parte hartu ikastaro horretan.

Gainerakoan, azken urtean Berako langileek zein hautetsiek ez dute hizkuntza trebakuntza zein hobekuntza ikastarorik egin. Soilik, UEMAk helbide elektronikoz bidaltzen dituen trebakuntza fitxak jaso dituzte, hileroko.

KULTURA ZERBITZUA

Kultur teknikariak ez du parte hartu hizkuntza prestakuntzarako ikastaroetan azken urtean.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Udal Musika eskolako irakasleek zein administrariak ez dute euskara trebakuntzarako ikastarorik jaso. Soilik, UEMAk helbide elektronikoz bidaltzen dituen trebakuntza fitxak jaso dituzte, hileroko.

UEMAren irizpidea

Hizkuntza prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizun zehatzak. Beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten.



Horretarako, irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lanorduetan hizkuntza prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- *Bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuari dagokion HEa egiaztatua ez duten langileen eskariei lehentasuna emango zaie.*
- *Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.*
- *Edozein kasutan, langile guztiak izango dira kontuan hizkuntza prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak, eta lanpostu zerrendatik kanpoko langileak ere bai.*

Hizkuntza prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko luzapenak eman ondoren, dagokien HEik egiaztatu ez duten langileak jendaurreko zerbitzuetan ez dira arituko, baldin eta zerbitzu hori euskaraz emateko gaitasunik ez badute.

c. Prestakuntza orokorra

Prestakuntzari orokorrari dagokionez, eskaini diren eta jaso diren ikastaroen gaineko datuak aztertu dira.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Azkenaldian udal langileek ez dute ikastaroetan parte hartu.

Udal langileei NAPIk, ANIMSAk eta NUKFek egiten diete prestakuntzarako eskaintza. Ikastaro eskaintza zabala egiten dute: NAPIk, esate baterako, 2014ko 1. seihilekorako 44 ikastaro eskaintzen zituen, eta beste lau on-line. Denak gaztelaniaz. Azkeneko urteotan ikastaroen bat eskaini izan du euskaraz, baina oso gutxi izan ohi dira, zenbaitetan euskara teknikarien sareak berak eskatuta eta batez ere teknikariei zuzenduta.

ANIMSAk eskaintzen dituen ikastaroak ere gaztelaniaz izan ohi dira.

NUFKek ere eskaintza zabala du, baina 2014rako webgunean jarrita zeukan eskaintza orokorreko ikastaro guztiak gaztelaniaz dira.

Beran bertan ez da ikastarorik egin. Udal langileak ikastaroren batean parte hartu izan dutenean, Iruñera joan dira eta gaztelaniaz egin dituzte ikastaro horiek.

KULTURA ZERBITZUA



Azken sei hilabetean kultur teknikariak egin du prestakuntzarako ikastarorik. Normalean, gaztelaniaz, Nafarroako Kultur Teknikarien sarekoak izaten baitira.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Azken sei hilabetean ikastaro bat jaso dute Isidoro Fagoaga udal Musika eskolako irakasle batek eskaini zuen lankideentzat, ele biz.

UEMAren irizpidea

Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izan daitezen saiatuko da.

Udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarritz.

2. Baliabide teknikoak

Udalaren baliabide teknikoei dagokienez, honako hauek hartu ditugu kontuan: Udalaren tresna eta aplikazio informatikoak (oinarrikoak zein berariazkoak), intraneta, telefonia (finkoa zein mugikorra) eta bestelako gailuak.

a. Tresna edo aplikazio informatikoak

Udalaren baliabide teknikoei dagokienez, honako hauek hartu ditugu kontuan: Udalaren tresna eta aplikazio informatikoak (oinarrikoak zein berariazkoak), intraneta, telefonia (finkoa zein mugikorra) eta bestelako gailuak.

i. Aplikazio orokorrak

Tresna edo aplikazio informatikoetan, ordenagailu guztien oinarrizko elementuak aztertu ditugu: sistema operatiboa eta ofimatika.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Hamabi ordenagailu daude herriko etxean. Horietatik batzuk euskaraz dituzte windows sistema eta Ofimatikako aplikazioak eta beste batzuk, berriz gaztelaniaz.

KULTURA ZERBITZUA



Ordenagailu bakarra dago Kultur Etxean, kultur teknikariarena. Sistema operatiboa eta ofimatika gaztelaniaz daude.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Udal musika eskolan hiru ordenagailu finko (administrariarena eta beste biak irakasle gelakoak) eta eramangarri bat (zuzendariarena). Sistema operatiboa eta ofimatika gaztelaniaz daude.

ii. Berariazko aplikazioak

Berariazko aplikazioetan, sailaren jardun jakin batzuetarako berariaz sortutako aplikazioak aztertu ditugu.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Udaleko gestiorako aplikazioak (ANIMSA) euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko aukera ematen du. 13 berariazko aplikazio daude bertan (ikus behealdeko taula). Langileek, sarrera intraneten bidez egiten dute, euskaraz. Beraz, behin euskaraz sartuta aplikazioaren euskarazko bertsioan lan egiten da. Hori dela eta, udal langileek, euren lan jardunetarako, euskarazko bertsioa erabiltzen dezakete, baina ez dute denek euskarazkoa erabiltzen. Izan ere, euskarazko aplikazioetan akats gehiago izaten da (literalak eta beste).

Udal kudeaketako aplikaziotik eratortzen diren agiriak (plantillak), berriz, euskaraz, gaztelaniaz zein ele biz atera daitezke, baina normalean euskaraz edo elebitakoak erabiltzen dira. Izan ere, nahi diren plantillak sor baitaitezke.

Nafarroako Gobernuaren aplikazioen artean hirutik bik, Lizentzia fiskala kudeatzekoa eta Foru zergak kudeatzekoa, euskarazko zein gaztelaniazko sarbidea dute eta agiriak euskaraz zein gaztelaniaz atera litezke horietatik. Hirugarrena, katastro aldaketak kudeatzekoa (DIGIT), gaztelaniaz dago.

Azkenik, posta arrunta kudeatzekoa euskaraz dago.

BERARIAZKO APLIKAZIOAK- IDAZKARITZA

Aplikazioaren izena	Erabilgarritasuna	Aplikazioaren sortzailea	Hizkuntza
Udal agirien kudeaketa eta	Erregistroa Errolda Zergen kudeaketa (ibilgailuena eta beste batzuk) Plusbalioa Pertsonen eta lurraldearen kudeaketa Katastroa	ANIMSA	Aplikazioa: euskaraz eta gaztelaniaz. Agiriak: euskaraz, gaztelaniaz zein ele biz.



	Diru bilketa eta kontabilitatea Aurrekontuaren kontabilitatea Hilerriaren kudeaketa		
IAE	Lizentzi fiskalaren kudeaketa	Nafarroako Gobernua	Aplikazioa eta agiriak: euskaraz/gaztelaniaz.
NGko agirien kudeaketa telematikoa	Foru zergak kudeatzekoa	Nafarroako Gobernua	Aplikazioa eta agiriak: euskaraz/gaztelaniaz.
DIGIT	Katastro aldaketan kudeaketa	Nafarroako Gobernua	Aplikazioa eta agiriak: gaztelaniaz
GAMES	Posta kudeatzeko	Correos	Euskaraz

KULTURA ZERBITZUA

Kultur zerbitzuan, berriz, berariazko aplikazio bakarra erabiltzen da: SALTO, giltzak programatzeko aplikazioa. Eleanitza da eta euskaraz erabiltzen da.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Berariazko aplikazio bakarra erabiltzen da. ENCORE aplikazioa. Partituren ediziorako erabiltzen da eta ingelesez dago.

iii. Intraneta

Atal honetan, udal langileek intranetean edo barne sare informatikoetan euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu.

Egoeraren analisisia

IDAZKARITZA

Erakundeak langileentzako eta hautetsientzako intranet zerbitzua dauka eta gaztelaniaz dago. Langileek Udaleko aplikazioaren alor guztietarako sarbide zuzena du eta, batik bat, herriko etxeko sarrerako langileek erabiltzen dute. Hautetsienak, berriz, aplikazioaren zenbait alorretarako sarbide zuzena du. Batez ere, kontsultak egiteko erabili dezakete, baina ia ez dute erabiltzen.

KULTURA ZERBITZUA

Ez dago intranetik.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez dago intranetik.



iv. Telefonía

Telefoniari dagokionez, aldez aurretik grabatutako mezuak ze hizkuntzatan dauden aztertu dugu (erantzungailuetakoa, zentralitakoa...)

1. Telefono finkoetako erantzungailuak

Telefono finkoetako erantzungailuetako mezuak euskaraz dauden aztertu dugu.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Herriko etxera deitzeko zenbaki orokor bakarra dago eta, bestela 012a, Iruñeatik ematen den zentralita zerbitzua). Udaletxeko telefonoak ez du erantzungailua aktibaturik eta 012an euskaraz hartzen dute telefonoa, baina gaztelaniaz eginez gero, gaztelaniaz jarraitzen dute.

Dena den, barruko telefono lineatan ere erantzungailuak daude: idazkariak euskaraz du, albintek eta kontu hartzaileak gaztelaniaz eta, azkenik, alkatetzan ez dago erantzungailurik.

KULTURA ZERBITZUA

Kultur Etxera deitzeko zenbaki bakarra dago eta erantzungailua euskaraz dago. Bestalde, 012 zerbitzutik ere deiak bideratzen dira. 012an euskaraz atenditzen dute lehenetsunez, baina deitzen duenak gaztelaniaz egiten badu, gaztelaniaz jarraitzen zaio.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Udal musika eskolako telefonoaren erantzungailua ele biz dago, euskara lehenetsirik.

2. Telefono móbiletako erantzungailuak

Telefono móbiletako erantzungailuetako mezuak euskaraz dauden aztertu dugu.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Udal telefono mugikorren artean kaleko hiru langileenak (3), albinteenak (2) eta alkatearena daude. Guztira sei telefono. Alkatearenak ez du erantzungailua aktibaturik eta, gainerakoek bai, gaztelaniaz dute.



KULTURA ZERBITZUA

Ez dago udalaren mendeko telefono mugikorrik.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez dago udalaren mendeko telefono mugikorrik.

- v. Bestelako gailuak (megafoniako mezuak, hari musikala, irratia...)

Bestelako gailuetan, ikus-entzunezko edo entzunezko elementurik erabiltzen duten, eta erabiltzekotan, ze hizkuntzatan diren aztertu dugu.

Egoeraren analisisa:

IDAZKARITZA

Herriko etxeko igogailua da entzun daitezkeen mezuak ematen dituen elementu bakarra. Mezuak euskaraz ematen ditu.

KULTURA ZERBITZUA

Kultur etxeko areto nagusian (eszenatokiduna) egiten diren ekitaldietan megafonia erabiltzen da zenbait mezu emateko (“ez erre”; “telefono mugikorrak itzali, mesedez”; “zakarrontziak erabili” eta gisa horretako mezu orokorrak). Megafoniako hizkuntzari dagokionez, ekitaldi gehienetako mezuak (%80) euskaraz ematen dira, baina ele biz ere bai. Elebidunak kanpoko jendeak antolatutako ekitaldietan eta, oro har, gaztelaniaz eskaintzen diren ekitaldietan erabiltzen dira (antzerkiren bat...).

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da ikus-entzunezko edo entzunezko elementurik.

UEMAren irizpidea:

Idatzizko harremanetarako jarraibidea gauzatze aldera, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsioa egonez gero.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (igogailu...) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.



3. Itzulpen baliabideak

Itzulpen baliabideei dagokienez, Udalaren itzulpen laburrak zein luzeak nork egiten dituen aztertu dugu, baita euskararen kalitatea zaintzeko neurririk hartzen den ere. Itzulpenak bitan sailkatu ditugu: itzulpen laburrak edo errazak eta itzulpen luzeak edo zailak.

a. Itzulpen laburrak

Itzulpen laburrak dira 1-2 orrialdekoak, edo laburragoak izanik, hizkuntzaren aldetik zailtasunak dituztenak.

Egoeraren analisisa

IDAZKARITZA

Itzulpen laburrak zein luzeak izan udal langileek egiten dituzte, bai euskaratik gaztelaniara (%60), gaztelaniatik euskarara (%40). Itzulpen batzuk hautetsi batek edo bestek zuzentzen ditu. Gainerakoan, ez dira zuzentzen.

KULTURA ZERBITZUA

Egin beharreko itzulpenak, luzeak zein motzak (normalean motzak, kultur teknikariak egiten ditu eta ez ditu inork zuzentzen. Itzulpen horiek euskaratik gaztelaniara zein gaztelaniatik euskara egiten dira, maila berean. Normalean berak sortutakoak euskaratik gaztelaniara eta kanpotik jasotakoak, berriz, gaztelaniatik euskarara.

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Langileek, soilik, itzulpen laburrak egiten dituzte eta ez ditu inork zuzentzen. Itzulpen horiek euskaratik gaztelaniara zein gaztelaniatik euskara egiten dira, maila berean. Normalean bertan sortutakoak euskaratik gaztelaniara eta kanpotik jasotakoak (musika liburuetatik...), berriz, gaztelaniatik euskarara.

b. Itzulpen luzeak

Itzulpen luzeak dira 3... orrialdekoak, edo laburragoak izanik, hizkuntzaren aldetik zailtasunak dituztenak.

Egoeraren analisisa

Ikus itzulpen laburren atala.

UEMAren irizpidea (Baliabide teknikoak)



Euskararen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpide osagarriak:

Kontuan hartuz, UEMArekin bat eginik, udal honen hizkuntza helburu behinenetakoa dela, erdaratara jo beharrik gabe, euskara administrazioko eta gizarte harremanetako hizkuntza bihurtzea, betiere, indarrean dagoen legediari jarraiki; horrela, udaleko aginte organo (UEMAko kide diren udalerrri euskaldun hauetan ezinbestekoa da udalak normaltasunez jarduteko agintari politikoei euskaraz jakitea, horiek horrela, udalak bideak jorratuko ditu eta sustapen neurriak burutuko ere, hauteskunde garaian alderdiek udaletako hautagaiak izendatzerakoan irizpide hau kontuan har dezaten), administrazio-atal eta lanpostu oro gai izanez euskaraz burutzeko bere ahozko eta idatzizko hizkuntza produkzio arrunt eta tekniko guztia.

Aipatu organo eta atal horiek horretarako gai direnean, itzulpenak, horrenbestez —euskaratik edo euskarara direla—, eginkizun osagarria izango du bakar-bakarrik, aurreko puntuetan euskararen erabilerarako eman diren jarraibideekin lotuta ager litezkeen kasuan kasuko beharizan soilerako.

Hau da, zehazki hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusi den itzulpen beharrezana: herritarrei nahiz beste administrazio batzuei ele biz bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea. Aipatu itzulpen beharrezanari nola erantzun zehazteko, berriz, udal langileak arduratuko dira itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edo errepikakorra denean, eta udal itzulpen zerbitzura joko da itzulpen luzeagoetan.

4. Espediente ereduak

Espediente edo dokumentu erduei dagokienez, gehien erabiltzen diren ereduak edo espedienteak euskaraz dauden aztertu dugu.

Egoeraren analisia

IDAZKARITZA

Idazkariak euskaraz ez dituen agirien artean honakoak daude: Kontratuen funtzesko baldintzak, baldintza pleguak eta txostenak; planeamenduaren txostenak; obra baimenen txostenak...

Kontu hartzailearen espedienteak eta agiriak, oro har, gaztelaniaz daude. Esate baterako, kreditu aldaketetako eta osagarrietako txostenak, kontuen eta aurrekontuen txostenak, fakturak...

KULTURA ZERBITZUA

Ez da euskaraz ez den espediente edo agiririk.



ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

Ez da euskaraz ez den espediente edo agiririk.

UEMAren irizpidea

Udalak berak dituen lanerako espediente eredu eta dokumentu ereduak euskaraz behintzat egongo dira.

Udalak behar duen espediente ereduren bat ez badauka, eta euskara ofiziala den lurraldeko beste erakunde bati eskatzen badio, euskarazkoa eskatuko dio.



UDALAREN SAILKAPENERAKO IRIZPIDEAK

Erabilera plan honen helburu nagusia izanik udalaren hizkuntz normalkuntzan aurrera urratsak egitea, ezinbestekoa da lehenik eta behin udalaren egungo egoeraren definizioa egitea. Horrenbestez, egungo egoeratik abiatuta, errealagoak izango baitira aurrera begira onartzen ditugun helburu eta neurriak.

Udalaren argazkitik abiatuta, lau izan daitezke udalaren egoera definitzeko jarriko ditugun mailak: abian, magalean, gora bidean eta tontorrean.

- **Tontorrean:** oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz funtzionatzen duten udalak egongo dira maila honetan.
- **Gora bidean:** nagusiki euskaraz eta ele bietan (euskarari lehentasuna emanda) funtzionatzen duten udalak dira maila honetan kokatuko ditugunak.
- **Magalean:** nagusiki, ele bietan modu orekatuan funtzionatu arren, tartean gaztelaniahutsen ere funtzionatzen duten udalak.
- **Abian:** ele bietan funtzionatzera bidean, oraindik urrats handia egiteko duten udalak izango dira. Udalotan gaztelaniak presentzia nabarmena du.

Kontuan izan mailen definizio hau modu orokorrean egindakoa dela. Izan ere, eta bereziki udal handietan, administrazio atalen arteko desberdintasunek udalaren maila aldatzea ekar dezakete.

Gure balorazioaren arabera, Udalak alor bakoitzean lortutako batz besteko puntuazioa honakoa da:

BERAKO UDALA

PUNTUAZIO OROKORRA

7,21



ALORREZ ALORREKO PUNTUAZIOA

Irudi korporatiboa	7,87
Barne harremanak	7,28
Kanpo harremanak	6,64
Baliabideak	7,03

ABIAN maila/fasea	0-3,9
MAGALEAN maila/fasea	4-5,9
GORA BIDEAN maila/fasea	6-7,9
TONTORREAN maila/fasea	8-10,0

Horiek horrela, Berako Udalean egin dugun diagnosiaren arabera, Udala maila honetan kokatu dugu:

GORA BIDEAN

BERAKO UDALA

IDAZKARITZA

6,10



ALORREZ ALORREKO PUNTUAZIOA

Irudi korporatiboa	7,83
---------------------------	-------------

Barne harremanak	6,77
-------------------------	-------------

Kanpo harremanak	4,86
-------------------------	-------------

Baliabideak	4,96
--------------------	-------------

ABIAN maila/fasea	0-3,9
MAGALEAN maila/fasea	4-5,9
GORA BIDEAN maila/fasea	6-7,9
TONTORREAN maila/fasea	8-10,0

Horiek horrela, Berako Udaleko Idazkaritzako administrazio atalean egin dugun diagnosiaren arabera, administrazio atal hori maila honetan kokatu dugu:

GORA BIDEAN

BERAKO UDALA

KULTURA ZERBITZUA

8,07

ALORREZ ALORREKO PUNTUAZIOA

Irudi korporatiboa	8,91
---------------------------	-------------



Barne harremanak	7,33
Kanpo harremanak	7,27
Baliabideak	8,75

ABIAN maila/fasea	0-3,9
MAGALEAN maila/fasea	4-5,9
GORA BIDEAN maila/fasea	6-7,9
TONTORREAN maila/fasea	8-10,0

Horiek horrela, Berako Udaleko Kultura zerbitzuan egin dugun diagnosiaren arabera, zerbitzu hori maila honetan kokatu dugu:

TONTORREAN



BERAKO UDALA

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA

7,45

ALORREZ ALORREKO PUNTUAZIOA

Irudi korporatiboa	6,86
Barne harremanak	7,75
Kanpo harremanak	7,80
Baliabideak	7,38

ABIAN maila/fasea	0-3,9
MAGALEAN maila/fasea	4-5,9
GORA BIDEAN maila/fasea	6-7,9
TONTORREAN maila/fasea	8-10,0

Horiek horrela, Berako Isidoro Fagoaga Udal musika eskolan egin dugun diagnosiaren arabera, zerbitzu hori maila honetan kokatu dugu:

GORA BIDEAN



1. UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA- HELBURU OROKORRAK

1. Erabilera sustatzeko elementuak:

Herritarrek argi izatea udalarekin dituzten harremanetan euskaraz jardun ahal izango dutela.

2. Webgunea eta sare sozialak:

Webgunea:

Webgunea euskaraz irekitzea eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia lehenengoz euskaraz bistaratuko zaiola bermatzea, errore oharrak barne.

Webguneak beste hizkuntza batean nabigatzeko aukera ematen duenean, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta on-line izapidetzek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak betetzea; hau da, euskaraz ere egotea.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatzea.

Sare sozialak:

Udalak sare sozialetan euskara erabiltzea eta aukera dagoenean euskarazko estekak jartzea.

2. Hizkuntza paisaia

Barnekoa

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egotea. Horrez gain, udalak piktogramak erabiltzea, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko.

Gutun-azalak, orriak, fax-azalak eta abarrak euskaraz egotea. Baita egutegiak eta horma-irudiak ere.

Zigiluak euskaraz egotea, legeak ezinbestean arautzen duenari kalterik egin gabe.

Kanpokoak



Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egotea eta piktogramak erabiltzea, irudiak ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko.

4. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

Udalaren eta beraren menpeko erakundeen idazki orotan euskara erabiltzea beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Udalerrian zabaldu beharreko agirietan ere euskara erabiltzea beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiltzea.

Arreta berezia jartzea Udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari, beti ere komunikagarritasuna errazteari begira. Horrez gain, kontuan hartzea beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitzea, herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz.

5. Argitalpenak

Udalaren beraren argitalpenetan eta beste erakunderen batekin egiten dituen argitalpen konpartituetan beti euskara erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

6. Adierazpenak

Ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izatea eta ekimen horietan euskara erabiltzea beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.



2. UDALAREN BARNE HARREMANAK- HELBURUAK

Ahozko barne harremanak

Orain arte bezala, ahozko harremanetan euskaraz jardutea, bai langileek euren artean, bai ordezkari politikoek euren artean bai langile eta ordezkariak euren artean.

Idatzizko barne harremanak

Barrurako sortzen diren idatzi guztiak euskaraz egotea. Bai udal langileek sortzen dituztenak, bai kanpo zerbitzuek sortzen dituztenak (hirigintzako proiektuak, nominak eta kontratuak, ...).



3. UDALAREN KANPO HARREMANAK- HELBURUAK

1. Ahozko kanpo harremanak

Herritarrekin

Orain arte bezala jarraitzea. Hau da, herritarrei harrera euskaraz egiten, herritarrekin batzarrak euskaraz egiten, jendaurreko ekitaldiak euskaraz egiten..., herritarren hizkuntza eskubideak kontuan hartuz.

Udalak herritarrentzako ikastarorik antolatuko balu, horiek euskaraz izatea bermatzea.

Arreta berezia jartzea hedabideen aurreko agerraldiei. Ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan Udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezala bermatzea, eta argi izan dezala, eta ekimen horietan euskara erabiltzea beti.

Erakunde publikoekin

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatzea. Era berean, udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzeko, alde biko hitzarmenak sustatzea.

Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

Orain arte bezala, eragileekin harremana euskaraz izatea.

Era berean, eragileen aurreko agerraldietan Udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan bermatzea. Era berean, ekimen horiek euskaraz izango direla bermatzea beti, herritar gisa dituzten hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2. Idatzizko kanpo harremanak

Herritarrekin

Orain arte bezala jarraitzea, hau da, herritarrek udalarengandik jasotzen dituzten agiri guztiak euskaraz egotea, Udalak herritarren eskura uzten dituen bestelako erakunde publikoetako agiriak barne.



Erakunde publikoekin

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin, behintzat, euskararen erabilerari dagokionez, eredugarri izatea. Horretarako beharrezko neurriak hartuko dira: haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta beraiengandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da, egun indarrean dagoen araudiari jarraiki.

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti, 10/1982 legeari kalterik egin gabe.

Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

Eragileentzako agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...) euskara erabiltzea beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 10/1982 Oinarrizko Legeari kalterik egin gabe.

3. Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak

Udalarekin kontratazio administratiboen bidezko lotura duten zerbitzu enpresek Udalaren hizkuntza irizpideak betetzea.

Udalarekin kontratazio administratiborik ez duten hornitzaile eta enpresen ahozko eta idatzizko harremanetan lanketa espezifikokoak abian jartzea, euskararen erabilera areagotzeko.

4. Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak

Orain artean bezala, Udalak diruz laguntzen dituen elkarteei zein jarduerari begira, diruz lagundutako jendaurreko ekimen guztietan (xede den ekintza, publizitatea,...) zein udalarekiko harremanetan (ahozkoak eta idatzizkoak) euskara bermatuko dela sustatzea.

5. Baimenak

Hirigintza baimenak:

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, ondorengo baldintzapean ematea: kale eta bide publikoetako hizkuntza erabileran bederen iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabil dezatela.



Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta, egotekotan, dauden laguntzen berri emango die.

Udal eraikinak eta udalerriko espazioak erabiltzeko baimenak:

Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Udalak euskararen erabilera sustatzea eta, hala izan dadin laguntzea, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Jaietako postuak eta txosnak jartzeko baimenak:

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenekin udalak hitzarmenak sinatuko ditu, haiek postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiekin batera euskararen baldintzak ere betetzeko helburuarekin, udalak laguntza eskaintzea prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz ere jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.



4. UDAL BALIABIDEAK- HELBURUAK

1. Giza baliabideak

Planaren eraginpeko langileak

Helburuei begira, udal lanpostu zerrendako zein zerrendatik kanpoko langileak kontuan hartuko dira eta, beraz, langile guztiak plan honen eraginpekoak izango dira. Horretarako, plana azalduko zaie eta planaren aldeko jarrera sustatuko da, bereziki, Udalak euskara funtzionatzea eragiten duten langileen kasuan.

a. Hizkuntza gaitasuna eta prestakuntza

Udal langileak

UEMAren irizpideei jarraiki, lanean hasi aurretik, lanpostuaren araberrako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak kontratatzea, lanpostu zerrendakoak zein aldi baterakoak izan.

Udal ordezkariak

Euskaldunak izango direla bermatzea eta, era berean, euskaraz lan egiteko gutxieneko gaitasuna izango dutela, udalaren euskarazko funtzionamenduan oztopa ez dezaten.

b. Hizkuntza prestakuntza

Langileek lanerako hizkuntza prestakuntza egokia jasoko dutela bermatzea, besteak beste birziklatzeko eta eguneratzeko saioak antolatuta edo horietan parte hartuta.

c. Prestakuntza orokorra

Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izatea. Eta, udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, jarduera horiek euskaraz izan daitezen sustatzea.

2. Baliabide teknikoak

i. Aplikazio orokorrak



Udal ardurapeko ordenagailuak euskaraz egotea, hau da, sistema operatiboa eta ofimatika euskaraz izatea.

ii. Berariazko aplikazioak

- Udalak sortutakoak edo erositakoak diren aplikazioetan euskaraz lan egiteko aukera ematea, eta bertatik ateratzen diren agiriak euskaraz atera ahal izatea.
- Beste erakunde publiko batek aplikazio informatiko berri bat Udalaren esku jartzen badu, Udalak euskaraz dagoen ziurtatzea, eta, euskaraz erabiltzeko aukerarik ez badago, Udalaren Erabilera Planaren ardura duen taldeari jakinaraztea, aplikazioa euskaraz ere jar dezaten eskatzeko. Kanpo erakunderen batek sortutako berariazko aplikazioen kasuan, aplikaziook euskaraz ere erabilgarri egon daitezen sustatzea.

iii. Intraneta

- Udalak sortutakoak edo erositakoak diren aplikazioetan euskaraz lan egiteko aukera ematea, eta bertatik ateratzen diren agiriak euskaraz atera ahal izatea.
- Beste erakunde publiko batek aplikazio informatiko berri bat Udalaren esku jartzen badu, Udalak euskaraz dagoen ziurtatzea, eta, euskaraz erabiltzeko aukerarik ez badago, Udalaren Erabilera Planaren ardura duen taldeari jakinaraztea, aplikazioa euskaraz ere jar dezaten eskatzeko.

iv. Telefonía

Telefono finkoetako erantzungailuak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak) euskara erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.

Telefono mibileko erantzungailuak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak) euskara erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.

v. Bestelako gailuak (megafoniako mezuak, hari musikala, irratia...)

Etorkizunean egongo balira, euskaraz egongo direla bermatzea.



3. Itzulpen baliabideak

Itzulpen laburrak zein luzeak

-Legeak agindutakoari jarraiki, herritarrei nahiz beste administrazio batzuei ele biz bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea.

-Udal langileak arduratzea itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edo errepikakorra denean eta itzulpen zerbitzura jotzea itzulpen luzeagoetan.

4. Espediente ereduak

Udalak dituen espediente eta dokumentu ereduak euskaraz egotea, eta berriak behar direnean lehenbizi euskarazkoak bilatzea.



1. eranskina

Zerbitzua	Enpresa	Ze hizkuntzatan egiten dio AHOZ...		Ze hizkuntzatan egiten dio IDATZIZ...		Ze hizkuntzatan egiten diete AHOZ herritarrei?	Ze hizkuntzatan egiten diete IDATZIZ herritarrei? *	Zer-nolako harremana du udalak enpresarekin?
		...Udalak enpresari?	...enpresak Udalari?	...Udalak enpresari?	...enpresak Udalari?			
Informatika mantentzea	ANIMSA	E / G	E / G	Bitan	Bitan / G			4
Bulego-tresnen mantentzea	ANIMSA	E / G	E / G	Bitan	Bitan / G			4
Fotokopiagailu mantentzea	KOPIEDER	G	G	G	G			2
Su-itxalgailuen mantentzea	GDM-MERKOR	E / G	---	E / G	E / G			2
Kanpo Santuaren eta herriko kaleen garbiketa	ASPACE	G	G	G	G			2
Udal instalazioen garbiketa lanak*	HERMI S.L.	G	G	G	G			2
Uren analisiak	Laboratorios LAIA	G	G	G	G			2
Igogailuaren mantentzea	ORONA	E	E	E / G	E / G			2



Aholkularitza juridikoa	BIDERKA	E	E	E	E / G	E / G	E / G	2
Aholkularitza juridikoa	Urdangarin,	E / G	E / G	E	E / G	E / G	G	2
Arkitektoa	LUA arkitektuak	E	E	E	E / G	E / G	G	2
Arkitektoa	Carlos Rebollo	E	E	E	E	E / G	G	2
Ingurumen teknikaria	ECOLAN	G	G	G	G	G	G	2 / 4
Kontabilitate aholkularitza	ANIMSA	G	G	G	G			4
Lan aholkularitza (nominak eta kontratuak)	IRIARTE-ECHANDI	G	G	E / G	E / G			2
Lan aholkularitza (nominak eta kontratuak)	UGALDEA	E	E	E / G	E / G			2
Ur kontsumoa irakurtzea	CONTADORES GOMEZ	G	G	G	G	G	G	2
Katastroa	ESTUDIO 5	G	G	G	Bitan / G	G	G	2
ASEGURUAK	CORREDURIA SAN SEBASTIAN	G	G	G	G			2
ASEGURUAK	ACXON aseguruak	G	G	G	G			2



Lan prebentzioa	MC SDA PREVENCIÓN	G	G	G	G			2
Zerga bilketa	GESERLOCAL	G	G	G	G	G	Bitan / G	4
Arkitekto aholkularitza	NASUVINSA	G	G	E / Bitan	E / Bitan / G	E / G	E / G	2
012 Telefonogunea (zentralita)	NAFAR GOBERNUA	E	E	Bitan	G	E / G		4
Kirol instalazioen esplotazioa (Kiroldegia)	URDIBERA	E / G	E / G	E / G	E / G	E / G	Bitan	3
Udal hautzaindegia	JOSUNE IRASTORZA	E	E	E	E	E / G	Bitan	3
Bulego materiala	PAPELERIA SANCHEZ	G	G	G	G			2
PAPERA	DINA	G	G	G	G			2
Garbiketa materiala	GOIEKO	G	G	G	G			2
Argindarra	IBERDROLA	G	G	Bitan / G	G			2
Telefonoa	TELEFONICA ¹	E / G	E / G	Bitan	E			2
Telefono mugikorrak:	TELEFONICA MOVILES	E / G	E / G	Bitan	E			2

* 1: kontraturik gabekoak 2: Kontratudunak, baldintza agiririk gabe .3: Kontratudunak, baldintza agiriekin .4: Ez dakit



2. eranskina



2015eko UDAL LANGILEEN ZERRENDA – IDAZKARITZA ETA KULTURA

Izen-abizenak	Adm. atala	Lanpostuar en izaera*	Euskara maila	NAN	Posta elektronikoa
PILAR CHUECA INTXUSTA	Idazkaria	1	C1	15806307V	pchueca@bera.eus
M ^a DOLORES OYARZABAL ZUBIETA	Kontu hartzailea	1	EGA	72670336L	loiartzabal@bera.eus
JOKIN PASTOR ARRIAZU	Arkitekto teknikoa	4	Oposaketako azterketan GAI	15789954V	jpastor@bera.eus
ROSA SEIN ORDOQUI	Administraria	1	EGA	72666282J	rsein@bera.eus
GEMMA MITXELENA AGESTA	Administraria	1	EGA	72670203R	gmitxelena@bera.eus
ARANTZA IRIARTE LOIARTE	Administraria	1	Oposaketako azterketan GAI	72670424S	airiarte@bera.eus
AITZIBER ABASOLO LARRAZABAL	Administraria	1	EGA	29031245R	bera@bera.eus
JAVIER ELIZALDE EZCURRA	Administrariaren laguntzailea	4	Lehen Mailako Goi Zikloko Gaitasun Agiria	29150345F	jelizalde@bera.eus
MATTIN LEIZA LARRALDE	Albientea	1	Oposaketako azterketan GAI	15248890M	udaltzaingoa@bera.eus
MIGUEL ZUBIETA OCHOTECO	Zerbitzu anitzetako langileak	1	Mintzatua (euskaldun zaharra)	72655819S	-----



JOSE JAVIER TABERNA AGESTA	Zerbitzu anitzetako langileak	1	Oposaketako azterketan GAI	72671093V	jtaberna@bera.eus
RAUL IGLESIAS ALVAREZ	Kultur Teknikaria	3	EGA	44149727P	kultura@bera.eus
JESUS AGUIRRE OROZ	Atezaina	1	Mintzatua (euskaldun zaharra)	72660244-R	jaguirreoroz@gmail.com
URTZI GARAITA ARZA	Mendiko eta zerbitzu anitzetako langilea	4	EGA	30686312B	mendizaina@bera.eus

*Lanpostu Izaera: 1=Funtzionarioa; 2= Bitarteko funtzionarioa; 3= Laboral finkoa; 4= Aldi baterako langilea; 5= Praktikaldiko funtzionarioa.

Musika eskolako langileak:

8 irakaslek eta administrari laguntzaileak EGA edo C1 maila dute; bestalde, irakasle bat euskaldun zahar alfabetatugabea da.